



Trantsizio
eredugarri
baten
osteko
erronkak

HEGOAFRIKA

- **Behrooz Shojai, filologo kurdia:** «Kurduera bateratzeak gure herriaren banaketa ekar lezake»
- **Eneko Oregi, H1!:** «Gu ez gara inoren kontra hazteko jaio, ez EAri edo EAJri jendea kentzeko»
- **Sozioekonomia** Susan George-ren *Haien krisiak, gure irtenbideak* liburua
- **Julian Bereziartua:** «Askotan egia jakin bezain pronto hasten da gaixoaren gainbehera»

argia

Hegoafrikan



Lander Arbelaiz
bestelako begirada

www.argia.com/hegoafrika



Artikuluak egunero

- ▶ Lander Arbelaiz Hegoafrikatik
- ▶ Joxemari Ostolaza
- ▶ Agin Rezola
- ▶ Juanjo Ollasagarre
- ▶ Bilardo

Multimedia

- ▶ Bideo, diaporama, argazki eta jokaldirik onenak

Historia

- ▶ Apartheidetik Munduko Kopara kronologia

Twitter leihoa, irakurlearen txokoa, hemeroteka...

 **argia.com**



Azaleko irudia:
LANDER ARBELAITZ
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Joxe Mari Irazusta. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-buru: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Sorraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loarte. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: 13. P.K. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaitza Taldeko partaidea da.



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



Deabruaren abokatua

- **Elena Odriozola:** «Nire buruarekin fidatzen naiz».
SUSTRAI COLINA / 5

Asteko gaia

- **Hegoafrika.** Bakearen irribarrea. LANDER ARBELAITZ / 6

Pertsonaia

- **Julian Bereziartua:** «Medikuntza da nire zoroa».
SUSTRAI COLINA / 14

Iritziak

- **Ttakun (h)errenka** Euskara XXL. JOSÉ LUIS PADRÓN / 20
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 21
- **Hautetsi galantak** Ipar Euskal Herrian. IXABEL ETXEBERRIA / 22
- **Txandan** Idazleak. CASTILLO SUAREZ / 22
- **Anvil:** ingudeak eta mailuak. GORKA URBIZU / 23
- **Hiruko txikian** Udaren usaia. JOXEMARI OSTOLAZA / 23
- **Bertso berriak** Urtaroei jarriak. IMANOL LAZKANO / 24

Erdiko kaiera

- **Andrés Neuman:** «Liburu bakoitza idazten ikastea atsegin dub». ARITZ GALARRAGA / 25
- **Liburuak** XABIER ETXANIZ ERLE / 28
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 29
- **Ezpalak** JON TORNER / 30
- **Abarrak** JON TORNER / 31
- **Ihesi Aretxabaleta.** Urkulu, naturari egokitutako urtegia.
AMAIA UGALDE / 32
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 34
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 35
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

Termometroa

- **Eneko Oregi, Hamaikabat-eko presidenteordea:**
«Egigurenek ez du argitu zertan datzan bere apustua».
MIKEL ASURMENDI / 37
- **Nola erakarri Davos-eko klasea 'new deal' berdera.**
XABIER LETONA / 40
- **Behrooz Shojai, filologo kurdia:** «Kurduera bateratzeak gure herriaren banaketa ekar lezake». KARLOS ZURUTUZA / 42
- **Rikardo Arregi Sariak.** Lau izen, zeresana franko.
GORKA BEREZIARTUA / 44
- **Bero-beroa** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA,
XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Hego Tiroleko abertzaleen arbolak eta intxaurrak.
PELLO ZUBIRIA / 48



Azkena

- **Bidean bidaide, eta gogoan gogaide.** IÑAKI ANTIGUEDAD / 50



argia
argia.com/multimedia

Bertsio digitaletik harago Argi berri bat sarean



BIDEOAK:

Elkarrizketak, erreportajeak eta albisteak formatu arin eta azkarrean astero.

DIAPORAMAK:

Soinu naturalez, azalpenez ala musikaz girotutako argazki muntaia berritzaileak.

EKITALDIAK:

Euskal Herriko txoko ezberdinetan emandako hitzaldi eta ekitaldi interesgarriak klik batean euskaraz.

ARGAZKI-GALERIAK:

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.

FILM-LABURRAK:

Euskarazko film-laburren hautaketa.



“Nire buruarekin fidatzen naiz”

Elena Odriozola

2009ko Ilustrazio Euskadi Sariduna

Eta testuak irudia ilustratuko balu?

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Dani Blanco

Irudi batek mila hitzek baino gehiago balioko du, baina ilustratzailea beti idazlearen itzalean.

Batzuetan testuak liburuak egiteko aitzakiak baizik ez dira, eta irudigilearen lana idazlearena baino garrantzitsuagoa gertatzen da. Eskerrak geroz eta jende gehiago ohartzen den marrazkitxoak ez direla apaingarri hutsak.

Ez dira, ala?

Gurea erabateko sormen lana da. Nire lana pentsatzea da, zer, non eta nola jarriko dudana erabakitzea. Besteen istorioekin kontatzen ditut nire istorioak. Besteen testuetan oinarritu arren, beti agertzen da nire mundua.

Estilo propioa deitu behar zenioke horri, oso ondo geratzen da.

Nik tripetatik ateratzen zaidana marrazten dut. Ateratzen zaidana ateratzen zaidan bezala egiteak dauka zentzua niretzat. Horrela soilik mantentzen da estiloa. Zer da estiloa, zarena izatea ez bada?

Estiloa ez da funtzionatzen duena gastatu arte errepikatzea?

Hori ez da estiloa, moda baizik, eta moda ez da inoiz iraunkorra. Denbora pasa eta irauten duenak balio du.

Zu ere edertasuna barruan dagoen matrakarekin?

Estetika izugarri gustatzen zait. Ondo sentitzeko ezinbestekoa dut edertasuna. Ez bazait zerbait gustatzen nekez joango naiz harago. Nekez eseriko naiz kutrea iruditzen zaidan jate-txe batean, ederki jaten dela aurrez ez badakit.

Hain lan ezegonkorra edukita jatetxea aukeratzan!

Ez dakit izaeragatik ala orain arte beti lana eduki dudalako den, baina ez da larritzen nauen zerbait. Are gehiago, beldurrik ezak gauzei ondo ateratzen laguntzen die. Etorriko da etorri behar duena, eta etortzen ez bada beste zerbait egin eta kito.

Horixe bera esaten zigun lanpostu osoa eduki ahal izateko marrazketa ematen zigun marrazten ez zekien matematikako irakasleak.

Ume guztiek marrazten badute, zergatik marrazten dute hain heldu gutxi? Zergatik ez zaio marrazketari garrantzi gehiago ematen eskolan? Irudiari buruzko irizpide bat eduki-ko bagenu beste era batera ikusiko genuke mundua.

Bai, bai, baina orduan ere haurrentzat ilustratuko zenuke.

Ez dut ez haurrentzat ez helduentzat ilustratzen, nik niretzat ilustratzen dut. Nola marraztuko dut beste inorentzat? Nola jakingo dut zer gustatzen zaizun? Ezinezkoa da.

Aizu, benetako artea esplikatzeko soilik da ezinezkoa.

Lanak ez dira esplikatu behar. Ez baduzu ikusten ez duzu ikusten eta kito. Nik ere, askotan, bukatu eta gero eta beste norbaitek esanda ikusten dut egin dudana. Baina nirekin fidatzen naiz. Zergatia ez jakin arren, eta oker egon ala ez, badakit egiten ari naizena egin behar dudala. ■

Hegoafrika

Bakearen irribarrea

Hegoafrikako arrazen arteko harremana zuzena da guztiz; areago, lagunkoia kasu askotan. Demokrazia ezarri eta hamasei urtera, salbuespenak salbuespen, hegoafrikarren koloreak galdu egin du denbora luzean izan zuen garrantzia eta badirudi herritarrek ohitu egin direla ezaugarri horri erreparatu gabe bizitzera. Iraganeko zauriak itxita, erronka berriak dituzte orain.

Testua eta argazkiak:

LANDER ARBELAITZ

ARRAZA ETA KOLORE GUZTIETAKO JENDEA atzera eta aurrera dabil Cape Town erdialdeko supermerkatu hotzean. “Irauli egin da egoera”, esan dit sakelakoak saltzen dituen emakume beltzak, espero ez zuen elkarriketa batean aurrera doala konturatzen ari den neurrian. “Lehen, tren geltokira alaba jasotzera joaten nintzenean, ni bezala zain zeuden emakume zuriak mespretxu egiten zidaten. Orain berriz, kalean elkar agurtzen dugu eta irribarretxoak ere sortu dira...”. Lasaitu aurpegia jarri du une batez, hain urrun ez den iragana atzean nola geratu den konturatu balitz bezala.

Bide luzea egin dute hegoafrikarrek arrazen arteko guda zibila saihestu eta demokrazia ezarri zutenetik. Urteak egin zituzten Apartheidaren Gobernuak eta ANCK (Afrikako Kongresu Nazionalak) negoziatzen. Beltzen asmoak zurien beldurrekin uztartzea zen helburua. Azkenean, beltzek askatasuna lortu zuten, eta zuriak ere, euren buruak askatzea lortu zuten neurri handi batean. Ondoren, mundua harritu egin zen, komunitate beltzak zapaltzaile zaharrari barkamenaren eskua luzatu ziola ikusita, eta orduz geroztik, hamasei urtetan, aurrera egin dute arrazen arteko harremanek.

Baina hainbeste urtez herrialdeko gehien-go beltzari –egun, biztanleen %79– bere bidea oztopatu izanak ondorio garbiak utzi ditu XXI. mendeko Hegoafrikan. Horren erakusle dira milioika herritar beltzen etxe diren auzune edo *township*-ak. Hiri bakoitzak gutxienez bat badu, erdigunetik ez oso urrun. Bertako biztanleen bizi maila apurka gora doan arren, herrialdeko biztanlerik txiroenak auzuneetan bizi dira, askotan txapaz eraikitako gela txikietan. Gobernua pixkana etxeak

eraikitzen ari bada ere, bi milioi etxe inguru falta direla kalkulatzen da.

Sufrimendu hitzak

80 urteren bueltan dabilen Stasti Kasi, Eastern Cape landa eremuan jaio zen, Nelson Mandela eta egun herrialdean agintzen duen ANCKo goi agintari asko bezala. Xhosa ama hizkuntzan hitz serioak mintzo ditu. Goseak gidatutako bizi baldintza gogorrei ezin aurre egin eta Cape Townera lan bila joan zen beste milaka herritarren antzera. Hiria kanpoaldean metalezko txapa batzuk elkarren ondorian jarrita eraiki zuen lehen bizilekua. “Eguna argitu baino lehen joaten ginen gizon zurientzat lan egitera, eta ilunduta itzultzen ginean, poliziak etxolak birrindu zizkigula topatzen genuen. Eguna joan, eguna etorri. Lo egin ahal izateko, berriz eraiki behar izaten genituen”.

Azal beltz zaildua oraindik dotoreago egiten dio ilunabarreko eguzkiak argitutako ile urdinuak. Bere historia kontatu digu, baina hein handi batean bere herriaren Historia kontatzen du Kasik. Urtetan alde batera eta bestera egin ostean, azkenean poliziak kamioi batean sartu eta Khayelitsha auzune berrira eramane zuten. Hor bildu gara, eta gutxika inguruko jendea hurbiltzen hasi da, gizon jakintsuaren hitzak entzun asmoz.

Khayelitsha auzunea arriskutsua dela dio sekula aukerarik izan ez duen jendeak. Cape Town erdialdetik autoz 15 bat minututara dago. Bertako biztanleak hirira joaten ziren

“Txiro jaio nintzen, eta gazte utzi nuen eskola. Jainkoak lagundu dit lan hau topatzen. Nik ez badut egiten, nork egin behar du irribarre?”. Ciront Williams, egunkari saltzailea.



lanera, baina legez arraza ezberdinetako kideek ezin zutenez elkarrekin bizi, hara eram zituzten beltzak. Egun milioi bat pertsona inguru bizi da herrialdeko bigarren auzunerik handiena den honetan –Johannesburg kanpoaldean dagoen Soweto sonatua da handiena—. Eskolak, ospitalea, supermerkatua, haragia erretzeko postuak, tabernak, bankuak, ostatua, ordenagailu dendak eta gailurik bitxienak saltzeko postuak topa ditzake bertan bisitariak. Eta nola ez, jendea. Jende asko; bereziki umeak, kalean jolasean, gurpilekin, baloiarekin, panpinekin.

“Hainbeste sufrimendu sortu ostean, nola-tan barkatu zenieten zuriei urte-tako zapalkuntza hori?”. Kasik gertu du erantzuna: “Jainkoak ez zigukeen barkatuko gizon zuriak guri egindakoa guk eurei egin izan bagenie”. Hala dio hainbeste urtez arrazismoaren maila gorena lehen eskutik sufritu duen herritarrek, munduko galdetarik inozoena erantzungo balu bezala. Mendekua existituko ez balitz moduan mintzatzen dira Afrikako mutur honetan, ez Kasik zaharra bakarrik, gaiaz hitz egin didaten guztiek baizik. Europarrari ulertzen zaila egiten zaion zerbait da: urteak borrokan eman ostean, behin boterera heldu eta “iraganeko zauriak sendatzeko garaia heldu da, eraiki dezagun etorkizuna elkarrekin” esanez barkamenaren apologia egitea. Mandelaren hitzak izan ziren horiek, eta herritarrek jarraitu egin zioten 1994an. Horregatik idatzi dute hizki larriz historiako pasarte hori hegoafrikarrek, esaten dutena egia sinesten dutelako.

Amnistia orokorra zela eta ez zela, eztabaida sutsuak izan ziren herrialdean trantsizio garaian. Azkenean, Desmond Tutuk gidatutako Egiaren eta Berradiskidetasunaren Komisioak (TRC) historiako pasarte horrekin amaitzeko aukera eman zien hegoafrikarrei. Bi urtetan, iraganeko zauriak berriz ireki eta ongi sendatzeko bidea zabaldu zuen. Bi oinarri izan zituen komisioak. Batetik, lehen aldiz biktimei euren mina azaltzeko aukera eman zien. Bestetik, ekintza kriminalak egin zituztenei, egia kontatuz damua azaltzeko parada eman zien, nahiz eta damua erakustea ez zen nahitaezko betebeharra. 22.000 biktimek hartu zuten parte munduko beste lekuetara eramanean den komisioan; amnistia eskatu zuten 7.100 lagunetatik 1.146k lortu zuten. Zuri ugarik lehen aldiz izan zuen beltzen minaren berri, eta askok orduan ulertu zuen zergatik borrokatzen zuten auzuneetako “beltz komunistek”. Amnesia orokorraren amaiera izan zen. Berradiskidetasunaren

hasiera. Hala ere, ANCKo lider asko ez zen komisioaren emaitzarekin gustura geratu, maila berean jartzen zituelako euren borroka eta apartheidaren krimenak.

Barkatuz indartu

John Carlin kazetari eta idazleak bere begiekin ikusi du herrialde honen bilakaera. 1989an iritsi zen Hegoafrikara, kazetari korrespontsal gisa, eta ordutik tinta asko isuri du gai potolo honen xehetasun txikienak azalduz. “Ni iritsi nintzenean, beltzek ezin zuten autobusik onenetara igo, ezta trenen bagoirik ederrenetan bidaiatu ere, ezin zituzten parke publikorik politenak zapaldu, eta hondartzan ‘zuriak bakarrik’ moduko kartelak irakur zitezkeen, nahiz eta zurien zakurrak han lasai ibili. Eta herrialdearen gehiengo handia izanik, beltzek ezin zuten bozkatu. Batzuetan ulertzea zaila den eskuzabaltasuna izan zuten hemengo beltzek, eta Mandelak eta bere inguruko jendeak ikaragarriko pragmatismoa erakutsi

zuten”. Kazetari ingelesaren hitzetan, arerio zaharraz mendekatzeak eskuin muturreko talde terrorista zuri bat sortuko zuela argi zuten, eta kontrako bidea egin zuten. “Kontutan hartu hemengo zurien artean arma ugari eta ikaragarriko esperientzia militarra zegoela, askok Angolako gudan borrokatu baitzuten. Jende horrek herrialdea deuseztatu zezakeen”.

Datu zehatzik ez dagoen arren, demokrazia ezarri aurreko urteetan milaka zurik utzi zuten herrialdea Australia, Zeelanda Berria, AEB edota Ingalaterran beren bizitzak berriz hasteko. Baina ekonomikoki lur jota zeuden herritar beltzek ez zizkieten kendu bizilagun zuriei ordura arteko egoera baliatuz lortutako etxe, auto eta dirua. Ez zituzten herritar zuriak matxeteekin banan-banan txikitu eta ez zituzten marrazoz betetako itsasora bota. Zurien artean zabaldutako beldur eta zurrumurruak ez ziren sekula herrialde honen orrialdeetan idatzi. Bertan geratutako zurien

Goiko irudian, neskato hegoafrikarra baloiarekin. Mfesane Ndudwa, Khayelitshako bizilaguna: “Oso harro gaude gure herrialdea, gure kontinentea delako Munduko Txapelketa hartu duena. Munduari erakutsi diogu hemen ere gauzak ongi egiten direla, eta aho gaizto asko isildu ditugu behingoz”. Beheko irudian, Archibold Jonasi. Lau metro koadroko gelan bizi da: “Zergatik barkatu genien zuriei? Behingoz herrialde normal batean bizi nahi genuelako. Hilketak gehiagorik ez, bizi gaitezen bakean. Orain etorkizuna eraikitzen ari gara”.



◉ Hegoafrika

gehiengoak esker onez aitortu behar izan du apartheidaren burbuilatik azkenean esnatu izana. Euren kontzientziak ere lasaiago bizi dira “herrialde normal” batean.

Apartheid garaia, zurien gehiengoarentzat, errudun sentimenduak mikaztutako denbora tarte arraroa da. Prentsa askatasunik ez zen garai haietan, auzune beltzetako liskarrak propaganda gisa erabiltzen zituen orduko gobernu arrazistak. Politikarekin interesik ez zuen zurien gehiengo urrun bizi zen, bai mentalki eta bai fisikoki, herrialdea bizitzen ari zen errealtate odoltsutik, eurentzat prestatutako paradisu antzeko auzo lasaietan zeuden. John Carlinen hitzetan, mundu osoan ez zen komunitaterik Hegoafrikako zuriak baino bizi maila altuagoa zuenik.

Orain gutxi Clint Eastwoodek Invictus izenburupean zinema pantailetara egokitu berri duen libururen idazlea da Carlin: El Factor Humano gazteleraz edo Playing the Enemy ingelesez. Bertan bikain azaltzen du herrialdearen unerik kritikoenetakoan, herria inoiz baino zatituago zegoenean, 1995eko Munduko Errugbi Txapelketak arrazen arteko adiskidetasunean jokatu zuen papera. “Orain 20 urte esan izan bazenit gaur Hegoafrika Munduko Kopa ongi antolatzeke gai izango zela, zera erantzungo nizuke: zu seko erotuta zaude!”. Baina gaur egun, nahiz eta Munduko Koparen bezperan “lehertzear den arrazen arteko tentsioaz” mintzatu diren Europako hedabide ugari, “kazetari inozo askok idatzitako txorakeriak besterik ez dira horiek”, Carlinen iritziz.

Amnesia zuria

16 urte zituzten Jay Haupt-ek eta Sascha Polkey-k euren herrialdean demokrazia ezarri zenean. Cape Town kanpoaldean, bohemio sona duen Observatory auzoan bizi dira, apartheid garaian zuriak eta beltzak elkarrekin bizi ziren leku urrietako batean. Cape Town erdialdeko jatetxe eta taberna dotore

Goiko irudian, James Caribe, Kenyako etorkina: “Nire lankideek ere esan didate kontuz ibiltzeko Munduko Kopa ostean. Berriz etorkinon aurkako erasoak hasten badira ez dakit zer egin. Badakit zenbait auzunetatik dagoeneko jendea etxera itzultzen hasi dela”. Behean, Jay Haupt eta Sascha Polkey, Observatory auzoko bikotea. Kritikoak dira egungo gobernuarekin, beltzen aldeko politikak hartzen dituelako.

baten jabe da Haupt, eta Polkeyk berriz, komunikazio enpresa batentzat egiten du lan. Biak harro daude euren *hegoafrikartasunaz* eta egungo gobernuarekin nahiko kritikoak dira, batez ere goraka doan ustelkeria politikorekin. Gehiengo handia beltza den herrialdean, zuriak dira Haupt eta Polkey. Kolore biziz dekoratutako etxearen alde banatan autoarentzat aparkalekua eta barbakoak egiteko prestatutako belardi txikia dute. Finn izeneko seme ilehoria ekarri zuten mundura orain urtebete, eta orain, arreba txiki bat ekarri nahi diote. Familia zoriontsua dirudite eta bizi maila altua dute, herrialdeko batez bestekoa-ekin erkatuz gero. Hiritik urrunago legokeen etxe handiago baten bila dabilta, hau txiki geratu baitzaie. Eskuzabaltasun osoz, eurekin afaltzera gonbidatu naute, ezertaz ezagutzen ez bagara ere.

“Apartheidaz asko esan eta idatzi izan da, baina tira, egun Hegoafrika ezberdina da eta arraza guztietako jendea bakean bizi gara elkarrekin”, dio Hauptek. Iraganari buruzko galderak berehala bideratzen dituzte gaur egungo egoerara. Oso kritikoak dira, batetik, trantsizio urteetan herrialdetik ihes egin zuten milaka zuriakin, eta bestetik, egungo gobernuarekin, nabarmenki herritar beltzen aldeko politikak hartzen dituztela salatuz. Gobernuak, beltzen langabezia tasak txikitu asmoz, lanpostu bat lortzeko orduan beltzei lehentasuna ematen dieten legeak jarri ditu indarrean, eta zuri asko, prestakuntza hobea-ekin hainbatetan, diskriminatuta sentitu dira.



Urki
TXAKOLINA

Askizu Auzoa, Getaria
Tel.: 943 14 00 49 • www.urkitxakolina.com







Ezkerrean, umea Hegoafrikar bandera soinean duela. Eskuinean, Soweto auzunean emakumea janaria saltzen.

Ordea, beltzen klase ertaina azken urteetan izugarri hazi den arren, zurien %5a dago langabezian, eta beltzen %30a.

Beltzenganako interes falta leporatzen diete sarri hegoafrikar zuriei herrikide beltzek. Horren adibide, turisten artean horrenbesteko interesa edo morboa sortzen duten Soweto bezalako auzuneetara egiten diren tourrak. Apenas hartzen dute parte horietan hegoafrikar zuriek. “300 bat aldiz joango nintzen Sowetora kanpotarrei hemengo herritar txiroak nola bizi diren erakustera, eta guztira, bi hegoafrikar zuri etorri dira beren herrikideak nola bizi diren ikusi eta ikastera”, dio Lindane 30 urteko sowetotarrak. John Carlinen arabera, “zurien jarrera orokorraz asko esan da, baina aitortu beharra dago aldaketa onartu dutela. Estatu kolpe baten arriskua oso handia zen, baina hamasei urtetan berradiskidetasunaren mesedetan bide luzea egin dute hemengo herritarrek”.

Paradigma aldaketaz

“Apartheida sekula babestu izana ukatzen du hegoafrikar zuri askok. Nik neuk barne, zuri guztiek babestu genuen apartheida ordea, eta benetan gauza ikaragarria izan zen. Hori diot garrantzitsua delako iraganari ez ihes egitea. Ezinbestekoa da onartzea apartheida existitu zela eta bere garaian onura atera niola. Gehiago esango dut, hura indarrean mantentzen

zuen zutabeetako bat izan nintzen”. Roelf Meyerren hitzak dira, Apartheidaren Gobernuak trantsizioa negoziatzeko izendatu zuen gizona. Ondoren, Nelson Mandelaren Bata-sun Nazionalako Gobernuko ministro izan zen. Hitzok *Paradigma Aldaketa* liburuxkan utzi ditu; Hegoafrikako gatazka nola konpondu zuten deskribatzen du bertan.

“Hegoafrikak galdu du Mandelaren garaian izan zuen berezkotasun epiko hori eta egun dituen arazoak beste hogeinaka herrialderekin partekatzen ditu”, dio Carlin kazetariak. “Badago historiarekin mindutako jendea, oportunistak politikoak, behin eta berriz arrazen arteko tentsioari buruz zutabeak idazten dituen jendea... baina egun arrazismoa eta batasun nazionalaren kontua ez da gairik garrantzizkoena inondik ere. Lehentasunen zerrendan pobrezia, krimena, gobernuaren ustelkeria eta hezkuntza sistema hobetzea daude goiko postuetan”.

“Baina oraindik txapazko etxeetan bizi diren milaka pertsona horiek ez al dira engainatuak sentitu ANCren Gobernuarekin?”, galdetu diot Brian Currin abokatu hegoafrikar zuriari, Johannesburgoko bere bulegoan. Ados dago. Currin, bere herrialdeko gutxiengo baten barnean, gutxiengoa izan zen. Apartheidaren aurka borroka egin zuen zuria izan zen, urtetan heriotza-mehatxuak jasan bazituen ere. Bere hitzetan, zuriek dutena

ikusten dute beltzek, eta eurek ia ezer ez dutela, eta horrek bi taldeen arteko tartea zabaldu besterik ez du egiten. Currinen ustez, herrialdeko pertsona bakoitzari bere abildadeak garatzeko aukera eman behar zaio, eta behin bakoitzak etxea eta lana lortzen ditueanean, bizitza beste begi batzuekin ikusten hasiko da. Bere garaian Apartheidaren Gobernuari horrenbesteko buruko min sortu zizkion abokatuaren esanetan, herrialde honen arrakasta, neurri handi batean, politika ekonomikoan dago. Munduko Kopa arrakastaz antolatu izanak munduari begiak irekitzeko balio izan diola uste du, eta etorkizunean ondorio baikorrak izango dituela ziur da.

Xenofobia zurrumurruak

Cape Townen turistei Afrikako oroigarriak saltzen abila da James Caribe gaztea. Bi urte dira Kenyatik emazte eta haurrarekin kontinentea zeharkatuta etorri zela. “Zu kazetaria zara, zer gertatuko da Munduko Kopa ostean?”, galdetu dit. Ez da itaun erraza. Afrikatik herrialdera paperik gabe etorritako etorkinen aurka orain bi urte erasoak hasi zirenetik, etorkinak ez daude lasai. %30 inguruko langabezia tasak dituen herrialdean, azken hamabost urteetan zortzi milioi etorkin inguru sartu dira lanpostu apurrak borrokatzeraz.

Herrialdeko etorkinen artean zurrumurruak lau haizetara zabaldu dira. Munduko Kopa amaitzean, hau da, mundu osoko kamerek beste norabait begiratzean, berriz ere, orain bi urte bezala, eraso xenofoboak hasiko direla diote, batez ere hirietatik urrun dauden landa eremuetan. Gobernutik eraso hauen aurkako mezu gogorrak zabaldu dituzten arren, egoera itsusten ari da, egunkariak kasu batzuk dagoeneko azaleratu baitituzte.

“Egun, arrazismoa eta batasun nazionala ez dira gairik garrantzitsuenak. Lehenetasun zerrendan daude pobrezia, krimena, gobernuaren ustelkeria eta hezkuntza sistema hobetzea”

JOHN CARLIN, KAZETARIA


Khayelitshatik Cape Townera bidean, hama-bost pertsona goaz estu-estu eginda taxi elkarbanatuetan. Zuri bakarra, ni. Eskuinean eserita dut Siya Nitanga, 32 urteko tabernaria. “Lotsagarria da gure herrialde bizilagunetatik etorritako jendea iraso egitea. Bere garaian, erbestera joan ginenean eskuzabal hartu gintuzten, entrenamendu militarra eman ziguten eta gainera erregimen zuriaren erasoak pairatu behar izan zituzten gu hartzeagatik. Orain hona etorri eta gu haiei erasoka? Penagarria da”, dio.

Erdi beteta edo erdi hutsik ikus daitekeen edalontzia da inondik ere Hegoafrika. Norberaren begian dago balantza zein aldetara orekatu. Batzuek kriminalitate tasa altuetan, pobrezian eta gobernuaren ustelkerian jarriko dute arreta, beste-tzuek arrazen arteko berradiskidetasunean, hazkunde ekonomikoan eta Munduko Kopa arrakastaz antolatzeko gaitasunean. Kontuak kontu, bi ikuspegiak zuzenak dira ortzadarren nazioa marrazteko orduan.

Barneratu al dute Mandelaren espiritua Hegoafrikako gatazka bizitu ez zuten belau-naldi gazteek? 2009an egindako hauteskundeetan lehen aldiz bozkatu zuten Mandela kalean zela jaiotako hegoafrikarrek eta ANCK Mandelaren garaian baino bozka gehiago atera zituen, %66. Baikor da Nitanga. Herrialdea bide onean doala eta gakoa hezkuntza dela uste du. “Nik, bihotzaren txoko ezkutu batean, Hegoafrikako zuriak gorrotatzen ditut ni eta nire arbasoak tratatu izan gaituzten moduagatik, baina gure 12 urteko anaiak ez du inongo gorrotorik”. Lehen aldiz historian, beltzak eta zuriak elkarrekin joaten dira eskola askotara. Horratx etorkizuna. ■

argia.com Hegoafrikatik egunero bidalitako kronikak eta Mundu Kopari buruzko informazioa irakur daiteke txapelketari eskaini diogun kanalean.

CHILLIDA LEKU MUSEOA



Jauregi Auzoa 66 E • 20120 HERNANI • T 943 33 60 06
chillida@museochillidaleku.com • www.museochillidaleku.com



Ondarre baserria

20214 Segura (Gipuzkoa) Tel.: 943 801684
e-posta: ondarre@hispavista.com www.acvmultimedia.com/ondarre

Julian Bereziartua

«Medikuntza da nire zoroa»

Medikuarengana sano joan eta buruko-minarekin atera nintzen. Nola egin belarriz jasotako hitzek paperean graziaz galdutako ez dezaten? Frenadola aski izango ote da?

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

Tabernako semea zara...

Landetako tabernan jaioa. Horri zor diot izaera. Gerra ostean, ondo lan egiten zuen taberna zen gurea, jende asko arrimatzen zen inguruetatik, eta gurasoek taberna utzi zutenean, lotara etxera joan arren eguneroko otorduak bertan egiten zituzten 65 apopilo finko genituen. Gerora, Imanol Lazkanori entzun izan diot huraxe zela Azpeitia inguruko bertsolarien unibertsitatea. Etengabe edaten nuen saltsa horretatik eta hantxe ikasi nituen tratua, gizatasuna eta adar jotzea. Ez da ahaztu behar bai tabernan eta bai medikuntzan pertsonekin egiten dela lan. Medikuek zein barra atzean dagoenak atetik nor datorren begiratu behar du, nola jantzita dagoen, herren egiten duen ala ez, zer pausokera dakarren, zer aurpegi... Kuriosoa da, bai tabernan eta bai medikuarenean, ez gara beti garen bezalakoak, oso portaera desberdinak dauzkagu.

Orduan, zu izango zinen desberdina. Ez zen ohikoa izango 11 urterekin herriatik kanpora estudiantzera joatea.

Ez zen ohikoa ez, eta gainera, nik gazteleraz dena ulertu arren, oso traketsa nintzen hizketan. Iruñera joan nintzen, ordea, eta han inork ez zekien euskaraz. Batxilerra 11 urterekin bukatu, eta 18 urte bete arte egon nintzen bertan. Han nengoela aitak sarritan galdetzen zidan zer estudiantu behar nuen, eta bera tratantea zenez, eta ganadu mundua gus-tukoa nuen, albaitari egingo nintzela erantzuten nion. Halako batean, argi esan zidan: "Begira Julian, etxe batera gaixo bat ikustera joaten bazara, okerrenera jota sukaldean hartuko zaituzte, albaitari bezala bazoaz, onenera jota, ukuiluan!". Hori nahikoa izan zen ni konbentzitzeko.

Karrerako bigarren eta hirugarren urteak egunero hildakoak operatzen pasa omen zenituen.

Hildakoekin lan egin ezean ez dago ofizioa fundamentuz ikasterik. Anatomia taxuz ikasteko balio izan zigun guri, eta ez dago anatomia dominatzen ez duen mediku dezenterik. Bi urtez, egunero ordubetez, hildako bat operatzea tokatzen zen, egunero gorputz atal desberdina. Tokatzen zen atala operatu, eta hantxe gordetzen genuen berrirori hilotza, gorpuak, urdaiazpikoa bezala, formolarekin kontserbatzen direla jakinik. Gerra garaiko anbulanteak ez zituen inork erreklamatzeko eta horien gorpuak aritzen ginen. Hori irakurtzen duen edonork basati bat nintzela pentsatuko du, baina orduan halakoxea zen ikasketa prozesua, eta horri esker ikasi nuen ebakuntza bakoitzaren aurretik, non zauden, zertan ari zaren, eta zer egingo duzun garbi eduki behar dituzula.

Zer harreman duzu, egun, heriotzarekin?

Nire bizitzan 40.000 ebakuntza egin ditudala kalkulatu dut, eta zorionez, ez zait inor

Nortasun agiria

1935eko azaroaren 21ean Azpeitian sortu arren, Zarautzen bizi da egun. Zaragozako unibertsitatean medikuntzan eta Valladolidekoan kirurgia orokorrean lizentziatua, 70 urterekin jubilatu zen Osakidetzatik baina oraindik lanean dihardu bere Azpeitiko kontsultan. Euskadi Irratiko kolaboratzaile, egunkari eta aldizkarietan argitaratutako 500 artikulua baino gehiagoren egile, Uztarriako ohorezko bazkide, Ander Ugartek bere biografia idatzi zuen 2009an.





eskutan hil. Zorte izugarria da hori. Baina Zarauztik Azpeitira joateko, Zestoatik pasa beharra daukat, eta hilerri parera heltzean, beti begiratzen dut beste aldera. Arrastoa barru-barruan iltzatuta daramat, eta hildakoak ezin ditut ikusi ere egin. Halako hil dela eta joango ote naizen galdetzen didatenean, hemendik errezatuko dudala erantzuten dut beti, malkoak irtengo dit bestela. Bihotz gogorra izan dut, baina biguntzen ari zait. Mediku lanean sentimenduak baztertzen saiatzen naiz, baina lagunartean, 10 urteko haurra bezain sentibera naiz.

Bihotz gogor ala biguna izan posible da lana eta gainontzekoa erabat bereiztea? Barrua jaten dizun zalantza horri iskin egin dakioko?

Niri izugarri kostatu zait. Askotan geratu naiz lo egin ezinik klinikan operatu berriak dauzkanekin pentsatzen. Beti geratzen da kezka. Behin edo behin joan izan naiz klinikara bisitan, gaixoari kasu egitera behintzat, eta gehiagotan joango nintzatekeen barre egin izan ez balidate. Behin, gogoan dut, oso larri zegoen gaixo batengana joan, lo harra-patu, eta esnatu nuenean, esan zidala “zu don Julian zara, ezta? Oraindik bizi al naiz?”. Sabelak buelta eman zidan. Beste batean, ez nintzen gustura etxeratu ebakuntza batetik, eta gauean begirik bildu ezinik bueltaka nembilela, telefonoa hartu eta nagusiari deitu nion operazioa errepasa genezan. Errepasoa emanda, ondo operatu genuela ziurtatuta, “orain izan dadila Jainkoak nahi duena” esaten zidan nagusiak. Baina dena gure esku ez

dagoela jakiteak ez dizkigu ardura eta erantzukizuna gutxitzen. Ebakuntzara irribarretsu eta umorez sartu, eta gaixoak “barrez al zatoz? Ba ni bi umetxo etxean utzita etorri naiz, e” esaten dizunean, berehalaxe jartzen zaizkizu hankak lurrean.

Mediku zarenetik, zientzian irabazi dena gizatasunean galdu dela irakurri dizut.

Argi eta garbi. Guretzako gaixoa pertsona bat da. Pernandoren egia dirudi, baina ez pentsa denetan hala denik. Hil berri den lagun mediku batek karta bat idatzi zidan aspalditxo Alemaniatic han gaixoak zenbaki bat zirela esanez. Han medikuen txanda ebakuntza erdian amaitzen bada talde aldaketa egiten zela, eta azkenerako gaixoak ez zekiela nork operatu zuen ere. Pazienteak ospitalean astebete eman behar zuenean ere, egunero mediku desberdin batek egingo zion bisita. Niri hori ez zait sekula gustatu. Nik medikuntza harremanean oinarritzen dela sinesten dut, eta elkarren ezagupide horrek onurak baizik ez dakartzala. Alde bietako izen-abizenak ezabatuz gero dena da zailagoa, eta nire ustez, medikuen aurkako salaketen ugaritzeak lotura zuzena dauka horrekin.

Gizatasunaren parte da gaixoari bere hizkuntzan egitea. Zuk hasieratik egin diezu zure gaixoei euskaraz.

Gaixo bati bere hizkuntzan egiten badiozu, arrakastaren erdia ziurtatuta daukazu. Lagun mediku batek beti kontatzen du gaixo batekin erdaraz hasi eta ahal bezala erantzuten ziola.

"Nik karreran ikasi nuen, mediku batek gutxitan sendatzen duela, dezentetan arintzen duela mina, eta beti kontsolatu behar duela"

Euskalduna zela antzeman, euskaraz egin, eta gaixoari aurpegia ez ezik, erantzuna ere aldatu zitzaion! Horrekin dena esanda dago, ezta?

Beti esan behar zaio egia gaixoari?

Ezta pentsatu ere. Orain gutxi ezagutu dut nire esku ez zegoen emakume baten kasua. Minbizia zeukan, oso larri zegoen, eta egia esatea pentsatu zuten. Berehalaxe hil zen. Nik karreran ikasi nuen, mediku batek gutxitan sendatzen duela, dezentetan arintzen duela mina, eta beti kontsolatu behar duela. Gaixoak igartzen duenean apetitua galtzen ari dela, argaltzen, denek errukiz eta serio begiratzen diotela, badaki zerbait gertatzen zaioela, baina ez du egia osoa nahi. "Hola bizitzea baino hilda hobe" esaten didaten pazienteei txantxa bat egiten diet beti. Behin kontsultatik ateratakoan, berriz sartzeko agindu,

eta zerbait ahaztu zaidala-eta esku-ohean etzateko eskatzen diet. Hor harritu eta larritu egiten dira, "zer egin behar didazu ba?" galdetzen didate, eta hiltzeko injekzio txiki bat daukadala esaten diet. Inork ez du nahi izaten, denok bizi nahi dugu. Horregatik, askotan egia jakin bezain pronto hasten da gaixoaren gainbehera. Ez daukagu agonia luzatzeko eskubiderik, baina ahal den bitartean, gaixoa animatu beharra dago.

Zer harreman dugu euskaldunok eritasunarekin?

Asko kostatzen zaigu gaixorik gaudela esatea, nahiago dugu ezkutatu. Lehenengo bisitan historialak egiten hasi eta paziente askok erantzungo dizute ez direla sekula gaixorik egon. Burua altxa, berriro galdetu, eta ondo-koak erantsi ohi du haragi-etena izan duela, kataratetatik operatuta dagoela, hau, hori eta hura. Esaterako, ni umea nintzenean, tuberkulosi mordoa izan genuen gurean, jende asko hil zen, baina inork ez du esaten tuberkulosia pasa duenik. Nik, gaur egun ere, X-izpiekin arrastoak topatzen ditudanean, "ah, bai, ahaztuta nengoen" erantzuten didate askok. Horregatik, urtetan beldurrez etorri da jendea kontsultara. Hortik datoz "ez gaixotzeko modurik onena medikutara ez joatea" bezalako esaldiak. Zergatik uste duzu jende batek nahiago duela *kuranderoarengana* joatea? Jendeak badaki, gehienez ere, belar pare bat jartzeko aginduko diela, eta belarrek ez dutela hiltzen. Medikuek, aldiz, botika fuertea eman dezake, eta hiltzen badu, zer? Honetaz asko zekien apaiz batek ez zuen alferrik esaten euskaldunak "gorrak, gogorak, eta egoskorak" ginela.

Iritzi berekoa izango zen kontu eske deitu zizun gizarte segurantzako inspektorea.

Hori Azpeitian kontsulta zabaldu berritan izan zen. Garai haietan, 60 urteko errezildar asko ikusten nuen, azokara bastoiarekin etortzen zirenak. "Ez duk posible, ez diagu gauza

lagunekin euskaraz

interneten ere bai!

gure artean euskaraz

mobiletik euskaraz

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz**.

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



AZKEN HITZA

Ateraldia

84 urteko aitonari tokatzen zitzaion kontsultara sartzea. Ohiko azterketa egin, eta inongo botikarik eta errezetarik gabe bidali zuen Julianek etxera, pazientearen harridurarako. Harridura baretzeko asmoz, tratua proposatu zion aitonari: "Gaur ezer gabe joan zara, baina hemendik hamar urtera berriz etorri beharko duzu". Bi aldiz pentsatu gabe, "ados, ni etorriko naiz, baina zu hor egongo al zara?" ateraldia aitonak. Horixe dela Azpeitia inguruko umorea dio Julianek bi karkailen artean. Barre errazekoa da, txantxa zalea, botika onena horixe dela baleki bezala.

onik" pentsatzen nuen nire artean. Gaiari bi buelta eman, eta berehala jabetu nintzen, azalpena orografiarekin lotuta zegoela. Oso herri aldapatsua da Errezil eta horrek gaitz propioak garatzen ditu. Gurean, ezintasunagatik lau sos kobratzeko modua zegoela jakinda, denentzako paperak betetzen hasi nintzen. Batek belaunean desgastea zeukala, besteak bihotza nekatuta, urliak tentsio altua... Egiak jartzen nituen. Orduko gizarte segurantzako inspektorea ezaguna nuen eta halako batean bere deia jaso nuen. "Aizu, Julian, zer gertatzen da hemen? Badakigu lagun asko duzula Azpeitia inguruan baina ez ezazu hainbeste paper egin, gobernua arruina-tuko duzu, bestela!". Hura zer zen benetan ikusteko Errezilgo baserri batean pare bat egunean lanean jarriko nituela egin nien mehatxu eta hortxe bukatu zen kontua.

Gorra, gogorra eta egoskorra izateaz gain, jale eta edale fama izan du euskaldunak. Orain, aldiz, nutrizio kontuekin obsesionatuta gaudela dirudi.

Gehiegi. Askotan leporatzen zaigu jan-edana baizik ez izatea buruan, baina kontuz, goseak amorratzen ibiltzea ere ez da ederra, petral-petral eginda ibiltzen dira denak. Obsesionatu egin gara pisuarekin, baina gaizki daramagu. Aldizkariak aurre hartu digute, eta aldizkarietan gezur asko dago. Jan-edana askoz modu sano eta arrazionalagoan bizi behar genuke. Ni hasi nintzenean, alkoholiko asko zegoen gurean, baina zorionez, kopurua izugarri txikitu da. Zergatik? Ondo janez

gero gutxiago edanda bapo bizi daitekeela ulertu dugulako. Hemen ohitura izan da mendira, futbolera, zezenetara... edonora, beti zahatoarekin joatea, eta hori txarra da. Estomago hutsean edandako alkoholak izugarriko kaltea egiten du. Horregatik, umetan tabernara etortzen ziren bezeroei jateko eta edateko esaten nien, eta kontsultara datoze-nei, jateko eta edateko baina biak batera! Pentsa, hasiberrian gogoan dut ardoa izugarri gustatzen zitzaion zirrosia zeukan andre bat bisitatzea tokatu zitzaidalda. Ardorik ez probatzeko agindu nion eta sarri-sarri joango nintzaiola bisitan. Handik gutxira, total eginda zegoela esanez deitu zidaten, eta kontu eske joan nintzaionean, berak ez zuela hitzik jan, ez ziola ardoari ematen, orain Xerez-a edaten zuela!

Urteak pasa dira ordutik, baina 74 urterekin oraindik Azpeitikoko kontsultan lanean jarraitzen duzu. Egia izango da lana osasuna dela...

Medikuntza da nire zoroa. Jubilatuta askori galdetzen diet zer moduz bizi diren, eta batek baino gehiagok aitortzen dit hasieran oso gaizki pasa zuela, ezinez negar egiteraino. Hortik pasatzea baino jarraitzea hobe dudala iruditzen zait, eta gustura nabilen artean, aurrera. Iritsiko da uzteko ordua, eta iristen denean, utzi eta kito. Hori bai, nire lanak beste bati jana kentzen diola ikusten dudanean utzi egingo dut. Lehen ere erreparatu izan diot horri, eta lankide gazteei ezin zaie trabarik jarri. Errespetu eta laguntza osoa merezi dute. ■

galdera-erantzun bidezko

mahai-jolasa

badakrit

35 euro

ARGIAren harpidedunek

%15eko deskontua

FORMATU BERRIA


Ludi**toys** 

Eskaerak: 943 36 86 61

info@luditoys.com

www.luditoys.com

DVD



Euskara XXL

E

uskaldunok martxan jartzen ditugun ia prozesu guztietan herritarren babesa eta laguntza eskuratu behar

CONCETTA PROBANZA



José Luis Padroñ



Rozas



Urkiza

direla aldarrikatzen dugu, aurrea egin ahal dezaten besteek jartzen dizkiguten oztopoen gainetik. Prozesuen etorkizunak elkarrizketa eskatzen duela deia-darkatzen dugu, denen arteko elkarrizketa dinamika bat. Prozesuek oinarri sendoak eta printzipio argiak dituztela, irekiak izan behar dutela, lehia politikotik babestuek egon, inolako bazterketarik gabe, akordio zabala lortzea dutela helburu, ikuspuntu eta sentsibiltate anitzak bilduko dituen akordioa. Denen Adostasuna ahalbidetu behar dugula proklamatzeko dugu. Orain, ez dakit nik bene-benetan ba ote dakigun garbi Adostasun horrek zer esan nahi duen. Iruditzen zait euskaldunok euskaldunen artean ados jartzen badakigula, halako ohitura bai baitugu gauza guztiak oso demokratikoa den jarreraz adosteko, baina kontrako bidean, hau da, gauzak adostasunaren alde adosteko partez, ados jartzen garela gauza horiek guztiak ahalik eta desadostasun handienaz adosteko. Behar bada ez da erabat gure kulpak, eta gure izaerak berak behartzen gaitu adostasun handiz desadostasunarekin harro pozik elkar bizitzera. Iritsi dira aurtengo sanpelaioak, eta egiaz Euskal Herriaren historia eta aniztasun politiko eta instituzionala bikain erakusten duen prozesuaz disfrutatzen egon naiz Zarautzen: “elkarlanean” antolatutako festen egitarauan adostutako hiru egitarau ezberdin egon dira, Inurritzaiko Egitaraua, Gurekin Jai Festa Batzordearen Egitaraua eta Udalen Egitaraua. Hala hobe. Gipuzkoako Foru Aldundian ere adostu dute Real Sociedad futbol taldearen babesle publizitario bakarra izatea. “Gipuzkoa euskarekin bat” izango omen da elas-

tikoetan agertuko den publizitatea. Hitzarmenaren arabera, euskararen aldeko mezuaren truke, Foru Aldundiak 1,2 milioi euro inguru ordainduko dizkio “Errealari” hurrengo denboraldian. Euskaldunak maitagarriak baikara ados jartzen garenean, eta saiatu egiten gara munduko beste gizakiak

bezain zitalak ez izaten: horregatik hori bezalako diru-laguntza publikoa futbol talde bati ematea behar-beharrezkoa dela konprenitzen dugu, ados gaude, eta itsusi zaigu penagarria edota iraingarria dela pentsatzea, nola pentsatuko dugu ba halako gauzarik egiten duguna euskararen alde egiten badugu; horregatik, elkarrekin ados jartzen dakigulako, ametitzen dugu Eusko Jaurlaritzako lehendakariak edota Eusko Legebiltzarreko presidentek euskaraz ez jakitea, eta itsusi zaigu penagarria edota iraingarria dela esatea, nola esango dugu ba halako gauzarik egiten duguna Euskal Herriko pluraltasunaren interesen defentsarik eraginkorrenaren alde egiten badugu; maitagarriak garelako, horregatik da, sinistazue, euskaldunak ados gaude beste hizkuntza ofizial guztiak maite ditugula, beti maiteko ditugula, eta alarmismo hutsa dela, ez da maitasuna, ez da kultur zaletasuna ere, alarmismo hutsa besterik ez dela Euskal Herrian gero eta euskara gutxiago eta narratsagoa hitz egiten, idazten eta irakurtzen dela baieztatzea, nola baieztatuko dugu ba halako gauzarik euskaraz dakiten herritarren kopurua igoz doan, inoiz baino euskaldun gehiago dagoen honetan. Behin, euskaldunen arteko akordioaren aldeko formulak landu eta adostu egin beharko zirela oihukatzen zuen euskaldun bat ezagutu nuen, baina euskaldun jendeak, ahots batez, guztien adostasunez, tipo berezi eta kontserbadoretzat hartu genuen. ■

«

Iruditzen zait euskaldunok euskaldunen artean ados jartzen badakigula, halako ohitura bai baitugu gauza guztiak oso demokratikoa den jarreraz adosteko, baina kontrako bidean, hau da, gauzak adostasunaren alde adosteko partez, ados jartzen garela gauza horiek guztiak ahalik eta desadostasun handienaz adosteko

»

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



Ixabel Etxelservia

URRUÑAKO HAUTETSI ABERTZALEA

Hautetsi galantak Ipar Euskal Herrian

Frantses senatarien lana aztertu du *Lyon Capitale* aldizkariak, bederatzirterendako bozkatuak diren hautetsiek zer-nolako lan zama eraman duten agertuz. Horrela, senatarien presentzia ebaluatuz, komisiotan egiten dituzten ekarpenak begiratzuz, lege proposamenak irakurriz, sailkapen bat egin dute eta 343 senatarien izenen eta emaitzen –selektibitate edo baxo berezi horretako– azalpenak eman dituzte.

Ipar Euskal Herrian senatari ospetsua dugu, Miarritzeko auzapeza dena, Didier Borotra alegia. Gutxitan agertzen da prentsan, politikagintzan ez du boza askotan altxatzen, eta ia gutxienez hirugarren mandatu du Miarritzen. Konpromisoak bilatzen dituen hautetsia da eta azken herrietako hauteskundee-tan abertzale batzuk, ongi hautatuak, bere zerrendan kokatu zituen. Borotra beraz senataria dugu ere, eta plazaratu duten zerrendan, 343 senatarien zerrendan 341garren agertzen da. Komisiotako lanik ez du egiten, lege proposamenik ez du egiten, urte osoan galdera idatzi bakarria egin du. Argi da euskararen ofizialtasunaren aldeko legerik ez dela bere eskutik aitzinatuko ez eta euskal instituzioaren aldekorik!

Bigarren sorpresa MAMen (Michèle Alliot-Marie) eskutik heldu zaigu.. Urtero bezala, Donibane Lohizuneko



GAIZKA IROZ

bestak zirela eta, frantses justizia ministroa, Donibane Lohizuneko lehen axuanta hor zegoen. Ospakizunetan herritarrek Jon Anza gogorarazi diote, euskal presoan ardura duela gogoratuz.

MAMi erregulariki aurre egiten zaio estatuko pertsonaia inportantea baita, eta barne-ministroa izan ondoren justiziaren ardura hartu eta bere curriculumean euskal gatazkan toki zentrala baitu eta horren konponketarako ez duelako inongo urratsik egin, ez egiten ere. Hau kontuan hartzekoa da, zalantzarik gabe! Baina aldi honetan MAMek keinu bitxi bat izan du. Izan ere, estatuaren ministroa izaki, estatu hau laikoa delarik, akonfesionala, burkari buruzko debatearen inguruan sekulako debate nahasia bultzatu dutelarik, hor ikusi dugu MAM alimaleko gurutzearekin lepotik zintzilik, kolore desberdinetako harriz jositako gurutzea. Ateratzen al da Parisen horrelako gurutzearekin? Mezu berezia hedatu nahi izan al die hemengo herritarrei? Zer gertatuko zen ministro bat zapi bat buruan karrikara atera izan balitz? Musulmanek edo beste konfesio-etako herritarrek zer pentsatu behar dute laizitatea defenditzen duen estatu baten ordezkariak bere fedea ozenki erakusten duelarik. Eskuin muturreko hautesleekiko keinua al da? Jarrera ohargarria benetan, nahiko probokatzailea, gisa guztiz ministroa baita. ■



MAMek keinu bitxi bat izan du. Burkari buruzko debatearen inguruan sekulako debate nahasia bultzatu dutelarik, hor ikusi dugu alimaleko gurutzearekin lepotik zintzilik



TXANDAN

Castillo Suarez



“Idazleak ez dira benetako nekazariak” Amos Oz-i lapurtutako esaldia da.

Idazle judutarra kibbutz batean hasi zen idazten. Kotoi-soroetan lan egiten zuen orduan, eta idaztearena ez zitzaion inori deigarria egiten; egiazki, zama bat zen. Ausardia bildu behar izan zuen kibbutzeko arduradunei astean egun bat idazten jarduteko eskatu zuenean. Baimena eman zioten; hori bai, gainontzeko egunetan lan bikoitza egin behar zuen. Idazten eta argitaratzen jarraitu zuen, eta horretarako astean hiru egun eskuratzea lortu zuen. Idazketaren bitartez kibbutzerako dirua

Idazleak

lortzen hasi zenean, diruzainak esan zion ea zergatik ez zioten soroetan lanik egin ez zezakeen pare bat laguntzaile zahar jartzen, ekoizpena handitzeko. Hori ezinezkoa zela erantzun zion. Ozek kontatzen du gaizki sentitzen zela, maiz, esku-lanetan aritzen zirenek ikus zitezkeen gauzak egiten zituztelako eta berak egun askotan ez zuelako ezer idazten. Jantokira joan eta lotsa ematen zion.

Begiratzeari, hausnartzeari, irudikatzeari, amets egiteari, idazteari, asmatzeari, irakurtzeari... beti izanen dira alferrikakoak askorentzat, baina horietatik dira gozamenik handiena ematen digutenak. ■

Gorka Urkizu

MUSIKARIA

Anvil: ingudeak eta mailuak

Ez dakit gauza handirik zineari buruz, horregatik ardoarekin egiten dudana moduan taxutzen ditut nire sailkapenak: barruan zerbait mugitzen badit eta sabelaldea bero sentiarazten, delako pelikula/ardoa ona da niretzat. Kanada aldeko ardoari buruz ere gauza gutxi dakit —ezjakintasuna da gizakia- ren egoera naturala—, baina bertatik dator gomendatu nahi dizuedan pelikula: *Anvil, The Story of Anvil*. Gran Reserva bat, inondik ere.

Dokumental moduan aurkeztua, zinta honek Anvil metal taldearen benetako istorioa kontatzen digu: laurogeigarren hamarkada hasieran heavy musikaren talderik handiena izan behar zuena (Metallica edo Slayerren pare), destino petralaren sareetan erori eta ahanzturaren gela ilunera egotzia izan zen. Anvileko taldekideek, baina, dedikazio harrigarriarekin jarraitu dute aurrera, duinetan duin, aretorik ospelenean jotzen. Hori guztia maitasun eta errespetu osoz aurkezten digu Sacha Gervasi, zine-zuzendariaren eserle- kutik bainoago, jarraitzailearen ikuspegi humanotik egina dirudien ahaleginean. Hala, hasieratik Anvilen arima izan diren



DANI BLANCO

Lips eta Reinerren gorabeherak ikus dai- tezke: egungo euren bizimodua (50 urteak ondo beteak), beren esfortzu askotan antzua, hanka-sartzeak, ajeak, inozentzia, umorea, adiskidetasuna eta mundu honeta- koak diren beste hamaika sentimendu benetako. Emaizta? Ilusioari aspaldi egin zaion gorazarrerik behinena —“heavyena” esan beharko nuke agian—.

Hedabideetan musikaren alderdi men- ge- lena gurtzen den garaiotan, Anvilen doku- mentala antitesi moduko bat dela esatera ausartuko naiz. Rock’n Rolla- ren gezurra ikonoen bitartez sinetsi dutenek ikusi beharreko pelikula da hau. Ramonesen balizko Rock’n Roll Highscho- ol horretan —non matematikek eta formulek tokirik ez duten—, enborrezko ikasgaia. Egun guz- tiak Azkena Rock bat izango direlako ustearekin gitarra hartu eta talde batean engaia- tzen direnentzat abiapuntu gomendagarria.

Anvil hitzak ingudea esan nahi du ingelesez. Paradoxa hori ere alde du dokumentalak: bizitzan bezalaxe, batzuk ingude, bestet- zuk mailu.

Gaur AC/DC ikustera noa San Mames zaharrera. ■

Hedabideetan musikaren alderdi

mengelena gurtzen den garaiotan,

Anvilen dokumentala antitesi moduko


bat dela esatera ausartuko naiz. Rock’n

Rollaren gezurra ikonoen bitartez sinetsi

dutenek ikusi beharreko pelikula da hau

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Aditzen da dagoeneko gure zenbait herriko baz- terretan. Sanjoanak. Pun- tako txirrindularitzaren beroak, arraunen dantza akonpasatuaren azkarra, trenbi- deetako ortuak, baina eta tomate makilak, bertso pla- zen libratzea, lapa-biltzaileen ohiko galtzen modaren pirata. Hego Afrika estalpearen negutegiak langile greba bere azpian harrapatu du berriemaileen gezurrak uza. Begiz ikusia, belarriz sentitutako lantokien isila, parkinetako bakardade behin-behinekoa, ostatueta- kerraz betea, oro berezia hedabide erraldoiek ohi bilakatua. Internet bilakatua dugu udategi, baratzeeta-

Udaren usaia

ko makila landare koloredunen lurrin, bere garaian uza jangarria iza- nen duguna.

Gasteiz FIFA, hedabide hautatuen epaia grebalariek sartutako golak ezkutatzan saiatu da, teknologia azka- rrenak lanabes inpunitatea babes. Ustez kapitalaren bakterien aurkako penizilinaren jabe hautatuak, senda- belar lasaigarriz hornitu dituzte, izurri honetatik libra- tuko ez dituzten gaiaz tronparazita darabiltza magneto- foiak bailiran, mezu bakarraren uso hedatzaile gisan. Damutuko zaizkigu, ustez berandu baino lehen beran- duegi. Denborak ez du beti justizia ekartzen. Honetaz, dezente dakigu. ■

ALBERTO ELOSEGI



BERTSO BERRIAK
Imanol Lazkano

Urtaroei jarriak

Udaberria

I

Bere garaia heldu denean
naturaren erlojua,
urtarorikan dotoreenak
hartu du bere lekua.
Zuhaitzik zuhaitz, basorik baso
ujua eta ujua:
Udaberria aldarrikatzen
gustora dabil kukua.

II

Zuhaitzak berde, loreak garden
ta egunsenti urdinetan
abereen dunben doinu gozoek
oihartzun mendi gainetan.
Odola ere berritzen zaigu
izaki denon zainetan
esango nuke ludi osoa
degula maitementetan.

Uda

III

Hiru hilabete pasa ondoren
udaberriko zirrararen,
bat joan eta bestea heldu,
aroak datoz ilaran.
Garagar eta gariak heldu
ta arto soroak garan
udaberrian jaio zen hura
gorpuzten doa udaran.

IV

Luzatzen dira egunak eta
laburtzen dira arratsak,
eguzkiari begira daude
guztion ipar orratzak.
Aukera ona jartzen duenez
hain urtaro aberatsak,
betetzen dira mendiak eta
betetzen dira hondartzak.

Udazkena

V

Arto, babarrun, sagar ta gaztain
nonahi bada zer jasoa
zuhaitz bakoitzak bere kolorez
dotoretu du basoa.
Hego haizeak epelerantza
gonbidatu du usoa.
Denok benetan miresten dugu
hain da urtaro gozoa.

VI

Mundu honetan sortuak geran
izaki denok bezela,
urtea ere egunik egun
zahartzen doa horrela.
Udaberrian orri sortua
bilakatzean orbela
bere hizkeran esaten digu
negua badatorrela.

Negua

VII

Ta negu hori heltzen denean
zer da berak dakarrena?
Elurra eta kaskabikoa,
izotza berdin hurrena.
Eguzkiaren hurruntze horrek
eragindako herrena
bere xarma're badauka baina
urtarorik gogorrena.

VIII

Soildu zaizkigu zuhaitzak eta
zuritu dira mendiak;
gailurretatik urrundu dira
behor, behi eta ardiak;
lehortu dira nekazarien
bekokiko izerdiak;
beretzat gaua hau da agian,
lo hartu du izadiak.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

DOINUA: "Pello Joxepe" edo "O baserritxo".

erdiko kaira



«Liburu bakoitza idazten ikastea atsegin dut»

Hogeita hamahiru urte baino ez ditu eta dozena luze liburu argitaratuak. 2009an atera zuen *El viajero del siglo* nobelatzarra eta, besteak beste, Alfaguara saria irabazi. *Cómo viajar sin ver* izena du bere azken liburuak, aurreko liburu haren promozio biran idatzia izan denak.

ARITZ GALARRAGA

Argazkiak: Oriol Clavera

Ez dirudi abiapuntu oso literarioa.

Abiapuntu literarioak ez dira existitzen, literarioa helmuga da beti. Promozio bira batetik atera den liburu gisa aurkezten baduzu, ez den gauza bat irudi lezake, ez baita lerro bakar batean promozioa aipatzen. Liburua-
ren aitzakia da promozioa, baina ez gaia. Egia da birarik gabe ez legokeela libururik, bestela ez bainuen sei hilabetetan Latinoamerika guztia zeharkatuko. Bira horren aurrean bi bide nituen: denbora galdutzat eman edo esperimendu gisa hartu. Latinoamerika guztia zeharkatzea, Argentinatik Mexikora, abiada

bizian, denbora laburrean, aireportu guztiak ezagutuz, gripearen alertarekin batera, Honduraseko estatu kolpearekin, aparteko esperientzia zen. Lekukoa naiz ni, ez liburuko protagonista. Neure burua animatzen nuen esanez ez nuela liburu bat idazten bidaia-
tzen nuelako, baizik eta bidaia-
tzen nuela liburu bat idazteko. Eta batzuetan lortzen nuen autoen-
gainatzea eta pentsatzea Mexiko DF zeharka-
tzen ari nintzela hiria ikusi nahi nuelako.

Ez da ohiko dietarioa, ez sakoneko erreporta-
jea, ohar biziak baizik, hausnar motzak, aforis-

moak orobat. Kontatzen den esperientziari lotutako literatura, esan genezake.

Nahi nuen prosa bidaiaren isla izatea, gaur egungo turismoaren putzea. Idazkera arauak bidaiaren hasieran zehaztu nituen: promozioari buruzko ezer ez aipatzea, ohar oro hemen eta orain idaztea, hartara jasoko zuelako bidaiaren eta Latinoamerikako errealitatearen bizitasuna, freskura, urduritasuna, noraeza. Sarrerek motzak behar zuten, argazki kamerarik ez nuen eraman. Liburua kronika generoaren eta bidaia liburuaren nolabaiteko berrinterpretazioa da eta idazketa literarioan existitzen diren genero fragmentario guztiak erabili ditut, esaldi aforistikoa, mikroerrelatuen antzera idatzitako anekdotak, testuarteak. Begien aurrean gertatzen zen guztia idazten saiatzen nintzen. Nekagarria oso, baina biratik harago joan eta martxan den liburu baten idazketa bilakatu zen.

Egia da bidaiarik gabe ez dagoe-lar literaturarik, baina kasu honetan ez da agertzen bidaia metafora gisa, bizi esperientzia gisa baizik. Jarraitzen al gaitu bidaiak gizabanako bezala aldatzen?

Liburuan egiten diren galdera guztiek dute zerikusia globalizazioarenak propio diren kontraesanekin. Fisikoki lekualdatzeak badu zentzurik? Mundu osoa pantaila baten aurretik pasa daitekeenean absurdua irudi lezake. Google dago munduko informazio guztia –bide batez, Google izango da gure garaiko diktadura, pentsamendu bakarra–. Baina paradoxa da informazio horren zatirik handienak ez gaituela ardura informazio hori eskatzera behartzen gaituen bizi esperientzia bat dugun arte. Nahiz eta informazioa gu baino eraginkor eta azkarrago mugitzen den, gizabanako gisa lekualdatzeko beharra izaten jarraitzen dugu esperientzia eraldatzaile bat izateko.

Liburuaren zati handi bat gertatzen da ez-leku deitu horietan.

Bai, eta horien gainean oso modu sinplistan teorizatu izan da. Bada klise bat, zeinaren arabera esaten den aireportu, hotel, taxiak ez dutela identitate kultural edo nazionalik, denak berdinak direla. Gezur hutsa. Hartu Quito, adibidez: han bada bidaiaria lagunengandik berehala bereizten duen bionbo bat. Hala, ezin dira eman emigranteen agur eszena erdiragarriak. Merkeagoa da bionbo bat jartzea, bizi baldintzak hobetzea baino. Kurioski Miamin edota Txileko Santiagon ez dut horrelakorik ikusi. Arreta jarritz gero eta klabean irakurritz gero, konturatzen zara aireportuak politizatutako lekuak direla eta dau-den lekuaren ohitura soziologiko eta kontrae-

sanen bilduma itzela. Berdin, ez-leku deitu gainontzekoak.

Ez dakit nahita ala nahi gabe, baina *Cómo viajar sin ver* bada gaur eguneko literatura latinoamerikarraren antologia interesagarria.

Liburuan badira begi bistako bi hausnar: Latinoamerikako orainaldi gorriaren gaine-koa eta gure bidaiaitzeko modu azkarraren, turismo garaikidearen gaine-koa. Baina horietaz gain, liburu honetan dagoen hirugarren lurrazpiko liburua literatur eta zinema berriaren antologia da. Aipatzen diren autore asko ezezagunak dira, ez denak aurkitzen errazak, eta horiek ere zabaldu nahi nituen. Bada niri erakusgarri iruditzen zaidanaz hitz egiteko saiakera, nahiz eta ez modu oso sakonean.

Kasu honetan, ulertzen da gisa horretako esperientzia batetik 500 orrialdeko nobela ez atera izana. Baina nobela, ipuina, saiakera, itzulpe-na, poesia landu ondoren, nola inposatzen zaizu genero bat edo bestea?

Hasteko, enfasi handiegia jar-tzen dugu liburuaren luzeran. Eta intentsitatea da benetan garrantzitsua. Liburu honek izan zezakeen luzera bikoitza edota erdia, baina jaso behar zuen bidaiaren erritmo saltari, urduri, kaotiko eta era berean arina. Eta generoen kontuari buruz, nahiko mekanismo intuitibo dela esango nuke. Argazkilari batek ez du lehenik espazio bat begiz jo, txoko bat aukeratu eta enkuadorean pentsatzen, argazki bat ikusten du edo ez. Ideia gisa etortzen zaizkizun hainbat ezaugarri formal elkartzaren dira. Eta ez da miraria, entrenamendua baizik, kirolari batek mugimendu bat inprobisa dezakeen bezala, pentsatu gabe, baina erreakzio horiek izateko egunean hainbat ordu entrenatu ondoren. Berdin zure denbora genero desberdinetan irakurtzen eta idazten ematen baduzu, lite-keena da nahi gabe molde diferentetara ego-kituko diren ideiak sortzen joatea. Gainera, asko sinesten dut muga, eta kitzikagarriena zait potentzia lirikoa izan dezakeen narrazioa, ikaragarri narratiboa izan daitekeen saiakera, ideia eztabaida batean eragin dezakeen nobela. Liburu bakar baten esaldi bakar bat ere ez da genero bakarrekoa, lengoaiaren edozein ekintzak ditu kapa ugari.

Baina nobela ibai batetik zentzen, luzea oso, horrelakoak oso modan ez daudenean.

El viajero del siglo, definitiboki, ez da XIX. mendeko eleberri bat. XIX. mendean gerta-tzen da, baina gauza desberdina da. Egia esan *update* moduko bat da edo XIX. mendekoa



2.0. Ikus-entzunezko kulturarekin zerikusia duten hainbat fokatze bisual dago. Liburuaren gaia eta forma bi gauza ezberdin dira. Edozein modutan, ezinezkoa da saiatuta ere XIX. mendeko nobela bat idaztea, beti entzungo ditugu pertsonaiak *dolby* soinuan, gure iruditeria orainaldiko estimuluek osatzen dute. *El viajero del siglo* eleberriak zera planteatzen du: postmodernitatea, dena delakoa dela, ez dela soilik gure zerumuga estetikoan lehen literarioak ez ziren objektuak edo gaiak sartzea, baizik eta iraganaren ikuskera erradikalki ezberdina ere bere baitan hartzea. Zinemak konplexurik gabe egiten du hori, baina literaturak ez du kontuan eta askoz ere zurrinago planteatzen dira gauzak. Nobela historiko batek izan behar du kontserbadore, hizkuntza aldetik ez oso anbiziotsu, oso errealista, lau. Zergatik?

Aipatu nobelak, besteak beste, Kritikaren saria irabazi zuen, kritikoeek ematen duten saria. Ona al da hori?

Kritiko Espainiarren Elkartek gustu txarra duenaren seinale da [barreak]. Berri ona izan zen, ezustekoa, arraroa niri ematea. Uste dut Muñoz Molinari eman nahi izan ziotela, baina nahi gabe niri deitu zidaten [barreak berri].

Apustuak izan zuela ordaina.

Gaur egun badirudi bi bide daudela: edo idazten duzu nobela bat *cool* usaina duen guztiarekin edo idazten duzu nobela bat oso klasikoa. Ematen du bi bide erabat banandu direla, eta iruditzen zitzaidan lerro transbertsalak falta zirela. Egin dakieke istorio klasikoei omenaldia gaurko gizabanako batek soilik ezagut ditzakeen idazketa baliabideak erabiliz. Orainaldia ez baita gai bat, begirada bat baizik. Akaso horrek emango zien atentzioa, ustez kontrajarriak diren bi bideak adiskidetzen saiatzeak.

Dozena liburu argitaratu ondoren, poesia guztia *Década* liburuan bildu ondoren, Alfaguara saria, besteren artean, irabazi ondoren, gertzen zaizu erronkarik?

Ez dut erronketan pentsatzen, literatura egitea gehiago lotzen dut harridurarekin. Zer idatziko dut orain? Bada, aurrekoarekin zerikusirik ez duen zerbait. Liburu bakoitza idazten ikas-tea atsegin dut, eta horretarako aurreko liburuan erabilitako baliabideei uko egiten diet. Adibide ona dira *El viajero del siglo* eta *Cómo viajar sin ver*. garai erabat kontrajarriei buruz hitz egiten dute, baliabide literario erabat desberdinekin, baina bidaiei gaia partekatzen dute. Idaztean izan dezakedan *a priori* bakarra formularik ez errepikatzea da. Bakarra. Bada erosotasuna estiloarekin nahasten duen joera narritagarri bat. Liburu guztiak berdintsuak direnean esaten da. Eta hori bada estiloa izatea, nahiago dut horrelakorik ez izan. ■



DONOSTIA: Hernani, 13
BILBO - GASTEIZ
 Zuluaga Bitxitegiak: Galdakao eta Zornotza
www.eguzkilorejoya.com

EGUZKILORE®
 Zuluaga

Liburuak

KRITIKA

Katalina kontalari.
Iñaki Zubeldia. Irudiak: Estibalitz Jalón.
Pamiela / Faktoria K.
26 orrialde. 14 euro.

Haur eta gazte literatura
Xabier Etxaniz Erle



Goxotasuna eta irudimena

INAKI ZUBELDIK idatzi eta Estibalitz Jalónek ilustratutako lan honetan txitxarra kontalari baten istorioak agertzen zaizkigu: “Aspaldi hartan, mendiko belaze batean, txitxarra zahar bat bizi zen. Katalina zuen izena eta oso berritsua zen”. Berritsua ez ezik txitxarra ipuin kontalari aparta dugu eta horrela bi ipuin kontatuko dizkigu, lehena amona mantangorrien inguruan eta bigarrena tximeletarena. Baina bai batean bai bestean Matxin hankaluzek hankaluzeen ipuina eskatu arren Katalinak ez dio kasurik egingo. Testuinguru horretan hankaluzek nola bilakatu ziren matxinsalto azalduko zaigu, eta baita Katalinak gertakari hori nola hartu zuen bere istorioen bilduman hankaluzeari barkamena eskatu ondoren.

Irakurleak, beraz, hiru istorio ezberdin jasoko ditu baten barruan. Animalienak –mantangorriak, tximeletak, matxinsaltoak– baina guztiak zomorro txikien entretenigarri, guztiak ezberdinak baina aldi berean parekoak. Irudimena eta goxotasuna erabili dira istorioak sortzeko eta irudimena eta bizitasuna irudiak egiteko.

Liburu honetako testuak autonomia baldin badu ere, eta bera bakarrik irakurritz istorioa ulertu eta gozatzeko aukera eman arren, askoz aberatsagoa da irudien interpretazioarekin eginiko irakurketa. Estibalitz Jalónek zomorro horiei gizatasuna eman die, pertsonen antza zomorro izaera galdu gabe; horrela Katalinek amona baten itxura izango du, baina hankaluzek gazte dotore batena, tximeletak neska lotsati (?) bat dirudi, eta mantangorriak ume bihurria. Eta horrela, zomorroen munduan egonik –eta horretarako naturaren presentzia nabarmena eta etengabea da belar, hosto, adar eta loreen bidez– batek oso hurbileko sentitzen du mundu hori.

Jalónen lana, alde horretatik, goraipatu beharrekoa dugu. Azken urteotan euskal haur eta gazte literaturan berrikuntzak ageri baldin badira hori emakumezko ilustratzaileen aldetik etorri da gehien bat. Badira zenbait ilustratzaile –nik esango nuke ia denak emakumezko– oso lan berritzailea eta interesgarria egiten ari direnak euskal letretan, eta liburu hau dugu horren adibide. Baina, era berean, ez dugu ahaztu behar Etxepare saria irabazi zuen lan honen aurreko eta ondorengo sarietan –*Zirkua amets*, eta datorren udazkenean argitaratuko den lan berria– emakumezkoak direla ilustratzaileak.

Katalin kontalari liburu honek tradizioetik du –alegien tradizioetik, istorio baten barruan beste hainbat kateatzeko tradizioetik, fantasiatik...– baina baita modernitatetik ere; baina, batez ere, goxotasun eta irudimenetik; entzuleari kontatzeko eta irakurleak gozatzeko liburua; begiekin eta belarriekin disfrutatzeke lana. ■

Gaindegia 2009ko txostena

Gaindegia, Euskal Herriko Ekonomia eta Gizarte Garapenerako Behategiak 2009. urteko txostena kaleratu du. Lan horretan biltzen dira iazkoak gurean eman zituen adierazle nagusiak: lan mundua, enpresak, I+G... Garrantzi berezia eman diote Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako egoerari –joan den astean aldizkari honek berak bazekarren horren berri–, baita EBko erregioei ere. Eta zifretatik harago,

hainbat adituren analisiak ere bildu dituzte txosten honetan. Ez da urte erraza izan 2009a, Xabier Isasi Gaindegia lehendakariak sarreran aitatu duenez: krisiaren astindua, Euskal Herriko Laborantza Ganberaren aurkako ekimen judiziala edo Rafa Diez sindikalistaren atxilotzea medio. ■



2009ko txostena.
Batzuen artean.
Gaindegia.
70 orrialde.
22 euro.

Ospitalean nork bere buruarekin topo egitea

Ane Iruñeko ospitalean dago, lagunak Himailayan istripua izan duelako. Hari begira dago, baina bere buruarekin egingo du topo, gogotetan hasi delarik. “Deus ez da amaitzen, nork bere barruan hala sentitzen duen arte” hitzekin hasten da Xabier Artolaren *Deception island* narrazioa; 2010eko Kutxa Donostia Hiria saria irabazi zuen eta Alberdania argitaletxeak publikatu du orain. Bigarren pertsonan idatzitako ipuin honekin lortu duen saria ez da aurrenekoa Artolaren ibilbidean. Hor daude, besteak beste, Julene Azpeitia eta Tene Mujika ipuin sariak edota Gabriel Aresti ipuin lehiaketan eman zioten accesita.


Orain, bilduma bat atontzen ari da Artola. ■



Deception island.
Xabier Artola.
Alberdania.
45 orrialde.
8 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Traidor, inconfeso y mártir.

Same Old.

Babel Musik.

Iraupena: 53'38".

10 euro.

Erritmo eta intentsitate erabat askeak

GASTEIZKO TALDE HONEK 2007an *Contrafacto* izeneko diskoa kaleratu zuenean orriotan azaldu nuen iragane-ko hardcorea erabat alboratu eta ur askoz nahaspilatsu eta landuagoetan murgildu zela: hard-rocka, post-hardcorea eta bestelakoak batuz. Disko kontzeptuala den honetan, berriz, are eta jauzi handiagoa egin dute, eta perkusioak eta erritmoak izugarri garatuz eta teklaturekin giroak izugarri landuz, jazzetik hurbil aurkitzen ditut, post-

hardcorea, abesteko era hard-rockeroa, intentsitatea eta esperimentazioa inola ere gutxietsi gabe. Maila handiko taldea da, klasifikatzen edo kokatzen arraz zaila dena eta uneco harago joanez, arriskatzen duena. Lan hau Karlos Osinagarekin grabatu dute, eta kolaborazio oso bereziak izan dituzte. Erritmo honetan, kultuzko talde bihurtuko dira!

www.myspace.com/sameoldband

Same Old

«Nahiz eta pozgarria den, jendearen onarpena bigarren mailan dago guretzat»

"Traidore, aitortu gabeko eta martiri". Nor salatzen duzue?

Disko hau modu bat da *Contrafacto* lana egin genuenetik hona arte inguruko hainbat pertsonengandik bizi izan dugun desilusio eta une gogorren kontra barruan daramaguna botatzeko. Abesti bakoitza pertsonaia bat, istorio bat, egoera bat da. Hala ere, horrek guztiak taldea gehiago batu eta egiten dugun horretan are eta gehiago sinisten lagundu digu. Bizitzan eta batez ere musikaren alorrean apaltasuna falta da eta ego gehiegi dago. Eta ezin ahaztu 70eko hamarkadako Traidor, Inconfeso y Mártir taldea gutako senide batzuek sortu zutela.

Disko hau erritmo hutsa da... Erlojua ez da inoiz gelditu behar?

Arrazoia duzu, erlojua eta erritmoa ez dira inoiz gelditu behar. Erritmoak obsesionatuta izan gaitu aspaldian eta perkusioa jotzen duen



Gorka Gonzalez taldekide berriari esker askoz gehiago landu ditugu lan honetan. Izan ere, musikaren inguruan gehien erakartzen gaituzten hitzak erritmoa eta intentsitatea dira.

Zuen musika eskaintza eta zaleen harrera kontuan hartuta, ez zarete apur bat martizianoak sentitzen?

Garrantzitsuenaren norbera gustura egotea eta egiten duenarekin identi-

fikatuta sentitzea da. Gure musika ulertzeko eta espresatzeko beharrari fidelak izatea lortu dugu eta horrekin jada ase gara. Eta nahiz eta beti pozgarria den, jendearen onarpena bigarren maila batean dago guretzat.

Jazzaren askatasunak erakartzen zaituzte?

Bai, gutako batzuk jazz musikaren jarraitzaileak ere bagara, baina kontzeptuak erakartzen gaitu gehien:

abesti askeak, instrumentu bakoitzarentzat espazioa eta sentsazioei arreta jartzea.

Zer gehitu dio Karlos Osinagak lan honi?

Berari esker, soinuarekin oso identifikatuta gaude. Erabat ulertu gaitu eta gauzak ikusteko eta interpretatzeko antzekotasun handiak ditugu. Gainera, esperimentatzeko prest dago beti. ■

Ezpalak

JON TORNER

Joxemiel Barandiarani buruzko museoa zabaldu dute Ataunen

JOXEMIEL BARANDIARAN (Ataun, 1889-1991) antropologo eta etnografoaren bizitza eta lanak biltzen dituen museoa zabaldu dute Ataungo (Gipuzkoa) San Gregorio auzoko Larruntza errotan. Museoa osatzen duten bi eraikinen barruan testuak, argazkiak, bideoak eta indusketetako piezak daude besteak beste erakusgai. Museoa Gipuzkoako Parketxe Sarearen barruan sartu denez, bertako arduradunek kudeatuko dute.

Uztailaren 17an egingo da Aritzatxu Rock Free jaialdia



HAMABOST taldek parte hartuko dute Bermeoko Aritzatxu Rock Free jaialdian: Capsula, Dictadura, Los Frenos, Los Steaks, La Urss, Lobo Eléctrico (argazkian, taldeko abeslaria), Trigger Travis, Elfo Negro, El Desván del Macho... Uztailaren 17ko kontzertuak arratsaldeko ordubetetan hasiko dira. Kontzertuetarako sarrera eta kanpatzeko

lekua doakoak izango dira.
(www.aritzatxurock.com/)

“Tasio 25 urte” erakusketa jasoko du irailaren 26ra arte Uharte Buldain Fundazioak. Iaz bete zen Montxo Armendarizen filmaren 25. urteurrena. Grabazio uneak islatzen dituzten dozenaka argazki, panel informatiboak eta gidoiaren zirriborroak bildu dituzte erakusketan, beste hainbat objektorekin batera.



Mikel Urmeneta marrazkilari eta sormen-lan zuzendariak eta Javier Agirresarobe argazki-zuzendariak Euskaldun Unibertsalaren 2009ko saria jaso dute, Euskal Herriaren irudi ona kanpoan zabaltzen laguntzegaiaik.

Ron Carter

1960ko hamarkadan Miles Davisen boskoteko kide izan zenak jasoko du Donostiako Jazzaldiaren saria. Jazzaren munduan eza-guna da Carter, hainbat diskotan kolaborazioak egiten baititu. Donostiako Jazzaldian ere emango du kontzertua. Jazzaldia uztailaren 21etik 25era egingo da.



● **Maite Agirre antzerki zuzendari eta aktoreak Zazpika aldizkarian:** «Teatroa beti dago krisian, baina beti hor dago. Imajinatzen duzu erlijioak desagertzea, erritu horiek desagertzea? Ezinezkoa, ezta? Bada teatroa beste erritu bat da, aurrez aurre egiten dena. Kolektibitateak bildu beharra daukate, biltzea bera erritu bat da. (...) Gure ikuskizunetan jendearen parte hartzea handitzen ari denez, harreman horrek poz handiak ematen dizkit. (...) [Donostiako Antzerki Azoka gehiago ez egitea erabaki zutenean] profesionalak zur eta lur geratu ginen. Presio pixka bat egin genuen, eta aurreten berriro egitea erabaki zen. Baina hain dira kapritxosoak erabakiak... Orain bai, orain ez. Susmoa daukat Tabakaleraren kontuan ere horrelako zerbait egon ez ote den».

● **Lander Garro idazleak Ortzadar gehigarrian:** «Klase soziala ez da literaturan maiz agertzen den kontua. Agian idazleok posmodernotasunak eta halako zama ideologikoei mugatuta idazten dugu. Zaila da kate horretatik askatzea. Liburuaren ardatza da Paul Oliveira, eta nor den hobe ulertzen laguntzen digu bere ingurunea agertzeak. (...) Gurean liburu txar asko argitaratzen dela, ez idazleak txarrak direlako, idazleek korrika eta presaka idazten dutelako baizik, angustia jot».

● **Egoitz Andonegi Aiumeen Basoa taldeko baxu jotzaileak Berrian:** «Jendeak galdetu digu hizkuntza ez ulertuta zerbait galduko ote duen. Nire iritziz, absurdo samarra da letrak ez ulertzeagatik musikarekin disfrutatu ezin denik pentsatzea».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@ DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

JON TORNER

Zorte izugarria

Maus. Art Spiegelman.
Reservoir Books, 2009.
296 orrialde, zuri-beltzean.



AUSCHWITZ. Poloniako kontzentrazio –eta anikilazio– esparru horretan milioi bat lagun baino gehiago hil zituzten naziek II. Mundu Gerran, Europa osoko juduak gehienak. Poloniar juduak ziren Art Spiegelman komikigilearen (Stockholm, Suedia, 1948) gurasoak. Eta Auschwitz en eduki zituzten.

Bizirik atera ziren, ordea. Bizirik Auschwitzetik, bizirik Gerraren izugarrikeria guztietatik. Nola? *Maus* nobela grafikoaren aurreneko partea irakurtzen ari nintzela “zortea” hitzak mila bider kolpatu ninduen, eta, hara non, amaierako partera heldu aurretik “ZOR-TEA” irakurri dut liburuan, horrela, letra larritz. “adorea” eta “baliabide handiak” ere ageri dira, baina txikian. Sagu itxurako Art Spiegelmanen ahotik ateratzen dira hitzok. *Maus*-en bere aitaren –Vladek– historia bildu du. Hura da protagonista nagusia. Grabagailua eskuan, gurasoen –eta beraren– bizitza hunkigarria osatzen doa Art, gerra garaiko eta orainaldiko pasarteak abileziaz uztartuz.

Juduak sagu bihurtu ditu, naziak katu, poloniar ez juduak zerri, estatubatuarrak zakur... Propio marraztu ditu horrela, juduentzat Polonia okupatua sagu-zulo nola bihurtu zen irudikatzeke. *Maus* obra gogor eta hunkigarria da. *Raw* aldizkarian argitaratu zen aurreneko, zatika, 1980 eta 1991 artean. Urtebete geroago Pulitzer saria jaso zuen Spiegelmanek. Ez da gutxiagorako, II. Mundu Gerran juduek pairatu zuten jazarpen basatiaren testigantza argia da. Erritmo borobilez lotzen ditu lehenaldiko gertaerak eta orainaldiko bizipen eta sentimenduak, narrazioa arintzen duten baliabide grafiko ikusezinekin.

Obra gomendagarria da erabat. Horregatik zorte izugarriarena, txiripaz heldu baitiot azkenaldian gehien asebate nauen komiki edo eleberrir grafikoari. ■



AMAGOIA i ETXEKAR

Dendaldegi 7 • URNIETA (Gipuzkoa)

La Bretxa Merkatal Gunea

1. solairua

DONOSTIA (Gipuzkoa)

www.amagoiaietxekar.com

Tel. 943 336170 • 677 202122




Ihesi

Testua eta argazkiak:

AMAIA UGALDE

Euskal Herria ezagutuz:
Aretxabaleta (Gipuzkoa)



Urkulu, naturari egokitutako urtegia

Pasieran ibiltzeko, hegaztiak behatzeko edota inguruko auzoetako elizak eta baserriak miresteko toki aparta da Urkulu urtegia, mendiz inguratutako goi-lautadan. Aretxabaletako natura gunerik ederrenetakoa da, atseden hartzeko eta naturaz gozatzeko aproposa.

ESKUALDEKO HERRIETARA ura eramateko sortu zuten 1979an Urkulu urtegia. Lehen baserri batzuk zeuden lekuan jarri zuten, lau urteko lanen ostean.

Naturari egokituta ikus dezakegu gaur egun. Aretxabaletako herri gunetik kilometro gutxira dago, Kurtzebarri (1.146 m) mendiaren magalean, bere edertasun guztia harro erakutsiz.

Gune lasaia ez ezik, aire librean jarduteko lekua ere bada. 6,5 kilometroko luzera duen bidegorriak inguratzen du urtegia, eta kirola egiteko hainbat gune daude bertan,


ariketak nola egin azaltzen duten argibide-taula eta guzti. Ibilbide horretan, bidearen erdia, gutxi gorabehera, landa guneen ondotik egingo dugu, eta beste erdia basoen albotik. Urkulurainokotxez gertu daiteke, baina ez da komeni urtegi inguruak autoz betetzea. Bertan baditugu bi aparkaleku txiki, baina gomendagarriena 800 metro lehenago dagoen Otalora dorretxearen ondoan aparkatzea da, han leku handia dago eta. Jau-regi ezaugarriak dituen eraikin aparta da dorretxea, hainbat arotan eraikitakoa.

Babestutako natura-gunea

Aizkorri-Aratz parke naturalaren sarbide ere badugu urtegia, herri giroak eta mendialdeak bat egiten duten natura-gunean. Urtegiaren inguruan zein baino zein ikusgarriagoak diren lau auzo ditugu, hura zaintzen baleude bezalaxe: Larrino, Aozaratza, Areantza eta Goroeta. 189 pertsona inguru bizi dira horietan.


Landa gune osoan larre ederrak daude, eta biodibertsitate handia. Hori, auzoetako baserritarrek egingo lanari esker da batik bat. Izan ere, ahalegin handiak egin dituzte





ganadua aurrera ateratzen eta ingurunea mantentzen. Base-riez gain, abeltzaintza eta neka-zaritzak ustiatzeko ere badaude auzotik. Azken datuen arabera, abeltzaintzan dauden abereen ia erdiak ardiak dira, 386 buru inguru, eta behiak beste horrenbeste, 407 buru inguru.

Basoei dagokienez, pinuak dira leku gehien betetzen duten zuhaitzak, baina badaude bertako espeziak ere, esate baterako artadiak inguru beroetan eta hariztiak hezeetan. Mozoloa eta hontz zuria dira baso horietako eguneroko biztanleak, toki gutxitan aurki ditzakegun hegaztiak. Nabarmenezkoa da, bestalde, urtegian dagoen irlako hariztia, aspaldiko landareen erakusle eta hegazti ugariaren gordeleku. Neguko hotza pasatzeko aukeratzen dute hegazti batzuek: basahateak, kopeta-zuriek, antzarek, lertxun hauskarek... Eta beste hegazti asko ohiko bisitariak dira urteko sasoi horretan. Udabe-



rrian ere hegazti ugari izaten da, ugalketa sasoirako etorriak. Adituek diotenez, urtean zehar Urkulun 125 hegazti mota ikus daitezke, eta horietatik 36 galzorian daude.

Hobekuntzak egiten hasi dira

Eguzkia berotzen hasi ahala jende asko gerturatzen da Urkulura. Horregatik, hain zuzen ere, hasi dira apurka-apurka urtegiko azpiegiturak egokitu eta naturaren kontserbazioa segurtatzeko hobekun-

Fauna eta landaredia aberatsak aurkitu daitezke Urkulu urtegiaren inguru lasaietan.

tzak egiten. Aretxabaletako Udalak Naturgintza Fundazioaren laguntzarekin hasi ditu lan horiek.

Duela gutxi Aretxabaletako bainuetzeko industria eremuan bidegorria egin zuten, eta orain hori luzatzea da asmoa. Urkuluren alboan dauden Aozaratza eta Goroeta auzoak lotuko dituen bidegorria eraikiko dute, eta elbarrientzat egokitutako bidea izango da bertan. Arrantzarako irisgarritasuna ere hobetu gura dute, eta gune berezia jarriko dute ezintasunak dituzten pertsonen inolako arazo barik arrantzan egin dezaten.

Ingurumena zaintzeko eta Urkuluko fauna eta flora mantentzeko lana ere egingo dute. Aretxabaletan bertan badabilta ingurumenarekiko kontzientziazioa lantzen. ■

aretxabaleta



ARETXABALETAKO

udala

aretxabaletako udala

Otalora kalea, 1 • 20550 ARETXABALETA

Tel.: 943 71 18 62 • Faxe: 943 71 18 64

euskara@aretxabaleta.net

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Arrainaren portaera beldurtia ispiluaren aurrean

ARRAINEKIN EGINDAKO IKERKETA BATEK, horiek ispilu baten aurrean jarriz oldarkortasuna eta beldurra erakusten dituztela frogatu du.

Standford Unibertsitateko (Kalifornia, AEB) Julie Desjardins eta Russell Fernald ikerlariak Cichlidae afrikar arrain arraren portaera eta garunaren jarduera aztertu zituzten. Arraina ispiluaren aurrean jarriz, bere espezieko beste arrain arraren aurrean normalean erreakzionatzen duen eran erreakzionatzen du hasieran, baina ispiluko arrainaren mugimenduak espero dituenak ez direnez, azkenean beldurtu egiten da eta ihes egiten du. Arrain horrek ez luke inoiz alde egingo beste arrainarekin borrokatu baino lehen.

Aurkikuntza horrek zer pentsatua eman die ikerlariari. Orain, aztertu nahi dute ea ornogabe batzuk berdinak diruditen baina ez diren egoerak detektatzeko gai diren.



Erakargarritasun fisikoak eragina du epaimahaien epaietan

NEW YORKEKO CORNELL UNIBERTSITATEKO Justin Gunnell eta Stephen Ceci ikerlariak zuzendutako ikerketa baten arabera, erakargarritasun fisikoak eragin handia du epaimahaien epaietan. Oro har, erakargarritasun fisiko txiki-pertsonen zigor gogorragoak izaten dituzte: batez beste, 22 hilabete gehiago igarotzen dute espetxean.

Azterketa egin ahal izateko, inkesta egin zuten psikologia ikasten ari ziren 169 ikasleri. Inkesta horretan akusatuaren argazkia eta historia banatu ziren. Ikasle gehienek portaera oso arrazionala izan zela azpimarratu dute ikerlariak, eta gehienak bat zetoze pertsona bat errudun edo errugabea izendatzeko garaian ere bai, baina zigorra emateko garaian pertsona itsusiek zigor gogorragoa jaso zuten kasurik gehienetan.



Que se mueran los feos
(Hil daitezela itsusiak)
filmaren afixa.

Marrazoen haurtzaindegi bat topatu dute

Orain milioika urte bizi izan zen *Carcharodon megalodon* marrazoaren haurtzaindegi bat topatu dute Floridako ikerlari batzuek Panaman. Aurkitutako fosilak orain dela hamar milioi urtekoak dira; garai hartan kumeak zaintzen zituztela frogatu da.

<http://ttiki.com/14719> (Gaztelaniaz)

Txileko baleak eta mortsak arriskuan

Txileko parke naturaletan bizi diren baleak eta mortsak arriskuan daude inguruko izokin-haztegien eraginez. Aipatu haztegiak batzuetan epidemiak izan dira eta batzuk erabat hustu egin dituzte, baina hara hurbiltzen diren animaliak arriskuan daude.

<http://ttiki.com/14720> (Frantsesez)

Lucy baino zaharragoa eta handiagoa den hominidoa

Etiopiako Afar eskualdean Lucy baino 400.000 urte gehiago duen eskeletoa topatu dute. 1,50 eta 1,70 metro bitarteko altuera zuen, eta tximino handi baten proportzioak zituen. Ez dakite bi oinen gainean ibiltzen zen ala ez, besoak oso luzeak zituen-eta, baina gizakiaren arbasoa dela ziurra da.

<http://ttiki.com/14721> (Frantsesez)

Babeslea: iametza Interaktiboa

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

ideia batetik errealitatera

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

1924

Espainiako Gobernuaren datuen arabera, 1924. urtean Hego Euskal Herriko lurralde bakoitzean nekazaritzan jarduten zuten familia kopurua honako hau zen: Nafarroan 48.618, Bizkaian 18.684, Gipuzkoan 13.254 eta Araban 9.444.

Nafarroan, 2007an 1.378 soldatapeko langile ari ziren lehen sektorean. 1999an Bizkaian 393, Gipuzkoan 321 eta Araban 651.



GIPUZKOA KULTURA - CC BY SA

Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba. Aurren-aurrena, zorionak eta eskerrik asko egiten duzun lanagatik eta ematen duzun informazioagatik. Konposta nola egin litekeen jakin nahi nuke. Guk baserrian jan-hondarrak plastikozko ontzi batean botatzen ditugu, baina mindu egiten zaizkigu. Zerekin, non eta nola egin liteke konposta?

Emiliano Elola (Albiztur).

Iepa lagun. Konposta, lur-ustela edo luarra hondakin organikoak hartzituz lortzen da. Hartzidura hori oxigenoa hartuz egin behar da. Ontzi itxi batean, horixe, airerik hartu ezinik oxigeno faltan itota, hartzitu beharrean mindu egiten da. Luarra edozein tokitan egin daiteke, hondakin organikoak (hostoak, belarrak, sukaldeko kondarrak...) metatu, tarteka-tarteka lur pixka bat edo aurreko eginaldiko luarra jarritz. Metro bete baino gehiago ez pilatu. Hezetasuna behar du baina euri batean edukitzea ez da komeni; nahi izatera estali, baina ito gabe. Hilean behin jiratu pila, aireberritzeko, eta behin sei bat hilabetetik aurrera erabiltzeko moduan egongo da, erraz igarriko diozu. Egokiena metatxo horiek egiteko toki apropos bat eraikitzea da. Lur gainean, metro koadro bateko azalera eta 80 zentimetro garaiera duten hiru kaiola sailean, alde batetik erraz kendu eta jartzeko moduko oholez itxiak: bat betetzen, bestea hartzitzen eta hirugarrenetik luarra atera eta erabiltzen.

Intxaurrondopeko kuluxka

HOSTOAK JANGO DIZKION animaliarengandik babestea ezinbesteko du landareak. Animalia berrari, geroxeago, haziak daramatzen fruituak eskainiko dizkio eta honek, mozolo asko, jan eta lur berrietan sakabanatu eta ereingo ditu, simaur dosi egokiarekin erein, gainera.

Animaliak ez dira, ordea, landareen kontrario bakarrak. Landareak ere badira landareen arerio. Batzuk lagun, hauek kuttun, beste batzuk begiko, hura ezin ikusi eta hari ez ikusiarena egin, beste hari bizkarra eman, eta horrako hori... hori ahal badut zanpatu. Gure moduan jarduten dute landareek ere beren artean. Eta, nire artean, landareek nola egiten ote dute bizkarrarena, begikoa, zanpaztea?... Gustuko zaitut edo hoa pikutara edo babalore alaena edo... nola adierazi?

Maite edo etsai diren, isuri kimikoez esango dute. Guda kimikoa. Hans Molisch, botanikari txekiar-austriarrak, hilko zen urte berean, 1937an, proposatu zuen hartu eta eman harreman hauek azaltzen dituen hitza: aleopatia. *Allelon* eta *pathos* grekoetatik, “batak bestea pairatu” adierazten du.

Koalak lasai ederrean jaten duen eukaliptoaren hostoak askatzen duen substantzia batek, azpian harapatzen dituen haziak ez die ernatzen uzten eta beste landareek elorrio dute. Antzera jokatzeko dute pinuek (*Pinus* spp), arbiak (*Brassica napus*), ekiloreak (*Helianthus annuus*), asma-belarrak (*Datura stramonium*) eta abarrek. Ezagunena, hala ere, intxaurrondoa izango da (*Juglans regia* eta *Juglans nigra*). Hostoak eta fruituak jariatutako hidrojulgloa lurreratzean bertako mikroorganismo batzuk eraldatu eta juglona bihurtzen dute. Honek lurra kutsatu eta haziak etortzea galarazi eta landare asko pattaltzen ditu. Haren azpian ez da giro. Esaera batek dio intxaurrondopean lo-kuluxka eginez gero zoratuta esnatzen dela bat. Beste batek, ondo etortzeko intxaurrondoak etxeko errietak entzun behar dituela. Etxekoak zoratuz edo... Deabruaren arbola izatearen fama ez du bart arratsekoa.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA


Lenin oporretan

MOSKU, 1917KO UZTAILA. Urriko iraultza komunista ate joka zela, hainbat langile eta soldadu Errusiako behin-behineko gobernuaren aurka altxa ziren. “Uztaileko egunak” izeneko matxinadan boltxebikeen parte hartzea funtsezkoa izan zen, handik hiru hilabetera izango zen moduan, baina alderdiaren buruzagien erantzuna zalantzatia eta kontraesankorra izan zen udako istiluetan.



WWW.MARXISTS.ORG

Beheko argazkian, Lenin lanean. Ezkerrekoan Lenin bera oporretan, xakean. Haren ustez, oporrak ez ziren luxu kapitalista, borroka politikorako indarrak hartzeko aukera osasungarria baizik.



BRITANNICA.COM

Altxamendua zuzendu eta bidera zezakeen buru nagusia ez zegoen hiriburuan; Vladimir Ilitx Lenin oporretan zen, Finlandian.

Kanadako Carleton Unibertsitateko Carter Elwood-ek *Lenin on Holiday* (Lenin oporretan) ikerlanean adierazi duenez, boltxebikeen burua kanpogan izatea ez zen kasualitatea izan. Alderdikide gehienek ez bezala, Leninek maiz hartzen zituen oporrak. Bere artikuluen truke lortzen zuen diruari esker eta familia nahiko aberatseko seme izanik, oporraldi luzeak egin zituen maiz, boterea eskuratu baino lehen bereziki. Baina 1917ko urria eta gero ere, lanpetuagoa egon arren, opor laburrageoi ez zien uko egin.

Bidaetan kirola egiteko eta naturaz gozatzeko aukera aprobetxatu ohi zuen Leninek. Bizikletan ibiltzea, igeri egitea, eskalatzea eta mendian ibiltzea zituen gustuko. Oporrak bai, baina ez zuen atseden handirik hartzen. 1904ko udan, esaterako, emaztearekin batera ibilaldi luzea burutu zuen; ia Suitza erdia egin zuten oinez. Hala ere, batzuetan oporraldi lasaigoak egiten zituen. Adibidez, 1902an Britainiara egin zuten bidaia eta boltxebikeak ia oporraldi osoa lorategian eserita, itsasoari begira, eman zuen.

Leninek ez zuen kontraesanik ikusten bere ideien eta oporren artean. Harentzat, oporraldietan bidaia egitea ez zen jarduera friboloa edo luxu kapitalista, etorkizunean izango zituen borroka politikoei gogotsuago heltzeko bidea baizik. “Fisikoki eta mentalki ondo egonda buruzagi gisa lan hobia egingo zuela uste zuen”, Elwooden hitzetan.

Leninek berak, 1907an kostaldera egindako bidaiari, zera esan zion amari: “Jenderik eta lanik gabe, halaxe egotea dut gustukoan”. Baina 1917ko udazkenean, Finlandiako oporraldia amaituta, jende andana eta lan mordoa zituen zain.

Arrastoak

Zezenak artean, eta Bilbon

BRONTZE AROTIK GAUR ARTE zezenak garrantzia handia izan du kultura mediterranean eta hori arte-adierazpenetan ere islatzen da. Horixe jaso dute Bilboko Arte Eder Museoan, *Taurus: mitotik erritualera* izeneko erakusketan. Irailaren 5era bitartean, besteak beste, bi anfora greziar, Ponpeia-

ko fresko bat eta azken mendeetako margolarien lanak daude ikusgai, hala nola Picassorenak, Goyarenak, Manetenak, Zuloagarenak eta Mirórenak (eskuinean Ignacio Zuloagaren *Zezenketa Eibarren*, 1899). Guztira, 200 lanetik gora bildu dituzte antzinako mitoa eta jai garaikidea hizpide.



Eneko Oregi

«Egigurenek ez du argitu zertan datzan bere apustua»

Bergara, 1953. 1981etik Gasteizen bizi da. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Itzulpen-Zerbitzu Ofizialeko burua da. ESBko kidea izan zen trantsizio garaian. Geroago, EAJn sartu zen Carlos Garaikoetxearen sektorearen bitartez. Hamaikabat-eko (H1!) presidenteordea da.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Alex Larretxi

HAMAİKABAT IZENAREN BITXIA aipatu diogu Eneko Oregiri hasieran: “Alderdiek izen klasikoak eta solemneak dauzkate. Hamaikabat-ek (H1!) jendea batzeko ideia adierazten du, baita ‘seriotasuna’rekin puskatzeko ideia ere. Pixka bat kostata, baina ohitu gara, arrakastatsua izan da”.

H1!ek Biltzar Orokorra burutu berri du. Zein da lehen urteko ondorioa?

Koadrila bat zena alderdia bihurtzea lortu dugu eztabaidaren bidez, ideia berrien sorkuntza eta antolakuntza dela medio alderdi serioa osatu dugu. H1! ez da batere lotua, eztabaida irekia, bizia eta zabala lantzeko jaioa baizik. Jendea hurbiltzen ari zaigu herri askotan, emaitza eta esperientzia baikorrak dira.

Non kokatzen da H1!?

Inongo zalantzarik gabe, abertzale-tasun demokratiko eta instituzionalaren esparruan. Esparru hauek eta Jose Antonio Agirre eta Manuel Irujoren ondareak dira gure erreferentzia historikoak. Espresio hau anitza da, hainbat sentsibiltatez osatua. Egin beharreko politikaz iritzi desberdinak eduki ditzakegu, baina H1! tradizio humanista, aurrerazale eta demokratikoari lotzen zaio bereziki.

Nola baloratzen duzu ezker abertzalearen eta EAren arteko azken agiria?

Ezker abertzaleak eta EAK Euskalduna Jauregian aurkeztutako doku-

mentuak bi gauza erakusten ditu: bat, dokumentua ezker abertzalearen diskurtsoak mamitu duela, ez EArenak. EA ezker abertzalearen ildo historikoarekin lerrokatu da, eta ez alderantziz. Bi: hori esanda, guk ondo ikusten dugu sektore politiko hori elkartzea eta egituratzea. Sektore edo tradizio politiko hori ez da gurea, gu ez gaude filosofia edota ideologia esparru horretan, baina ondo iruditzen

zaigu sektore hori antolatzea, ona da Euskal Herriarentzat sektore horrek politika egin nahi izatea.

Normalizazio politikoaren bidean, nola baloratzen duzu ezker abertzalearen *Zutik Euskal Herria* agiria?

Bide horretan oraindik ere urrats batzuk ematea falta zaio ezker abertzaleari. Ez urrats nominalistak, ez naiz esaten ari ezker abertzaleak zein hitz erabili behar duen eta zein





“Ezker abertzaleak oraindik pentsatzen du, ez dakit zein epetan, ETAren eta ezker abertzalearen existentzia bateragarriak direla. Hori da arazoa”.

ez. Arazoa ez da hori —nahiz eta azken agiritan agertu dituen termino batzuk ulertezinak diren, eta hitzek ez lukete politikaz ari gare-nontzat arazo izan behar—, baizik eta debate nominalistez gain, ezker abertzaleak oraindik pentsatzen duela, ez dakit zein epetan, ETAren eta ezker abertzalearen existentzia bateragarriak direla. Hori da arazoa. Gure ustez, ordea, politika-ko eztabaida guztiak gure herriaren borondatearen errespetuan abiatu behar dira. Abertzaleok ez badugu onartzen gure herriak duela azken hitza, herri osoak, herriarena dela nagusiki espresio politikoa, ez dugu ezer egingo. Indarkeriari buruzko herriaren adierazpen politikoa argi dago aspaldidanik, baina oraindik ez dugu ikusi ezker abertzalea ondorio horretara iritsi denik. Eta horretan exigenteak izan behar dugu, ez da kapritxoa. H1lek pentsatzen du puntu horretan zorrotzak izan behar dugula gure herriaren borondatea delako. Areago, ezker abertzaleaz gain ETAren jarrera ez da argitu. ETak laster bere jarrera agertuko duela esaten da, baina ez du egin. Normaltasun prozesu batean gaudela esateko agerbide horiek falta dira, baldintzarik gabekoak eta behin-betikoak, eta falta diren neurrian epe batean ezin izango dira jarrerak bateratu.

Ez gaude prozesua delakoaren atarian beraz.

Ez dirudi. Ezker abertzaleak prozesuari ekiteko adierazpen batzuk falta

direla dioenean, hala Alderdi Politikoen Legea deuseztatzea nola presoak Euskal Herrira hurbiltzea, aurretik baldintza batzuk jartzen dituenean, prozesua ez dela berehala hasiko adierazten du nolabait. Bien bitartean, prozesurako borondatea besterik ez dugu ikusiko. Eta gure herriak ez du prozesuaren borondatea ikusi nahi, bakea nahi du.

Aguraingo Ertzaintzaren aurkako erasoari buruz ezker abertzaleak emandako azalpenaz zer iritzi duzu?

Ezker abertzaleak batzuetan atzeraka dabilela ematen du. Adibidez, Aguraingoa baino askoz eraso gogorragoak izan ziren iraganeko prozesuetan. Ezker abertzaleak [EH] Ibarretxerekin legealdi ituna sinatu zuenean oso bortitza zen kale borroka, baina bere jarrera argiago izan zen orain baino. Aguraingoaren ondoren azaldu duen jarrerak gaizki pentsarazi nau, bere jarrera epela edo beldurtia izan baita. Izugarri larria izan gabe ere, erasoak Mitchell Printzipioak urratu ditu bete-betean. Eta printzipio horiek dira oinarri. Urraketa ez dela larria izan? Ados. Baina nork esan dezake eraso larriago baten aurrean jarrera antzekoa hartuko ez duenik. Ezker abertzaleak aukera on bat galdu du erantzun ulergarriagoa emateko.

Testuinguru honetan zer deritzozu Egituren ezker abertzalearekiko agertu duen jarreraz?

Zoritxarrez alderdi sozialistak ohituta gauzka gauza bat esaten eta beste

bat egiten. Itxura guztien arabera, alderdi sozialistak esparru guztietan egon nahi du batera: politika antiterroristan PPrekin, ezker abertzalearekin zubiak eraikitzen normalizazio prozesua zabaltzeko, nahi du ETAren porrota aprobetxatu elektoralki, baita irtenbide elkarriketatua gauzatu ere. Politikan bide horietan denetan batera jardun nahi izatea ez da zuhurra. Egituren informazio asko izango du agian, baina ez digu behin ere esan zertan oinarritzen den bere apustua. Beldur naiz, bake eta normalizazio prozesuari begira ez ote gauden urte luzeko egoera baten aurrean: ez bake ez gerra, ez normalizazioa ez anormaltasuna, ez elkarriketa ez inkomunikazioa, egoera gris eta nahasi batean. Egoera horiek ez diote ezer onik ekartzen gure gizarteari ez herriari, eta bereziki abertzaletasunari.

Zein balorazio egiten duzu Eusko Jaurlaritzaren urte bateko politikaz?

Jaurlaritza debaluatzen ari da egunetik egunera PSeren eskutik. Bere jarduna gero eta motelagoa da. Legealdia hasi zenetik, eduki gutxiko lauzpabost lege onartu ditu: Euskadiren Eguna izendatzeko legea, kasu. Kudeaketari dagokionez, Lopezen Gobernuak Zapaterori egin dion jarraipen kasarra ikusi besterik ez dago, baita zein azkar zorpetu den Jaurlaritza. Duela urte erdian egoera ekonomiko nahiko onean zegoen eta orain zenbaki negatiboetan dago. Alderdi sozialista PPren menpe dago erabat. Gai identitario sentiberatsuan PPK markatzen dio Lopezen Gobernuari bidea. Gobernu honek ez du ezer eraiki, gizartea zatitu eta enfrentatu baizik. Herria desartikulatzen eta krispatzen ari da.

PSOE, EAJrekin ere saiatzen da. Eusko Legebiltzarreko aurrekontuak biek onartuta daude. Zer iritzi duzu EAJk daraman oposizioari buruz?

EAJ oposizio desordenatua egitetik ordenatua egitera pasa da alor guz-

tietan. Hezkuntza, osasun, kultura, administrazio arloan... gero eta sendoagoa ari da. EAJ hiru diputazioetan ari da gobernatzen eta Jaurilaritzarekin adostu behar du ezinbestean. EAJk politikagintzan nahi duen lekua akordioekin eta desakordioekin lortzen da, aurre eginez eta ados jarritz. Zentzu horretan bere ildo garbia da eta nik errespetatzen dut.

Hori entzunda, batek pentsa dezake H1!en tokia EAJn dagoela.

Esan bezala, gu abertzaletasun demokratikoan eta instituzionalen kokatzen gara, baina esparru horretan ez dela zertan alderdi bakarra egon behar pentsatzen dugu. EAJ funtsezkoa da, gure herriaren historian ekarpen garrantzizkoak egin ditu eta EAEko lehenengo alderdia da. Halere, esparru horretan beste espresio politikoentzako lekua dagoela uste dugu, baina, ziur aski, beste espresio elektoral batentzako ez. EAEn lau bat esparru elektoral nagusi daude, ez gehiago. Abertzaletasun demokratikoarena da bat, inportanteena. Horrek ez du esan nahi esparru politikoan ez dagoela beste espresioetarako lekurik. Gure ustez, esparru bereko alderdiek hauteskundeetara elkartuta joan behar dute. Politika frentistetan sartu gabe betiere. Ni ez naiz jeltzalea sentitzen. Ez nator bat EAJren politika guztiekin, tira, batzuekin nahikotxo eta beste batzuekin ia erabat. Baina horrek ez du eragozpen izan behar kolaboratzeko eta hauteskundeak batera lantzeko.

Nafarroako politika hizpide: NaBai-ren aukera nola ikusten duzu uneon?
Gure alderdikide nafarrak NaBain daude. H1! sortzean alderdi bezala izan beharrean NaBai zaleak eta independenteak bezala hartu zuten leku koalizioaren barruan. Tentsioak eta lehiak azaleratu diren neurrian jatorrizko NaBairen ahalmenaren alde egin dute. Horretan dihardute eta jarraituko dute etorkizunean.

"Gu ez gara inoren kontra hazteko sortu, EAri edo EAJri jendea kentzeko, gu gure diskurtsoarekin identifikatzen den jendea biltzeko jaio gara"

EA eta Aralarren arteko aurreakordioaz zer diozu?

Urrats okerra dela. NaBairen indarra neurri batean –gizartean izan zuen oihartzuna eta hauteskundeetan lortu zuen emaitza– NaBairen aniztasunaren ondorioa izan zen. Jende askoren ilusioa piztu zuen Aralar eta EA baino gehiago zelako. NaBai bi alderdi nagusien gisa ulertzea –gero alderdi txikiei eta independenteek leku eginez– okerreko urratsak ematea da. Arazoak besterik ez ditu ekarriko, NaBai bi alderdi nagusien arteko lehian abiatu den unetik alderdi bien menpeko ekimen bezala agertzen da.

EAEn berriz, EA eta ezker abertzalea elkarrekin ikusten duzu hauteskundeetan?

Ez dut uste ezker abertzaleak eta EAK EAEn zerrenda bakarra egingo dutenik. Ez dut uste ere orain horretaz hitz egin daitekeenik. Gainera, EAren eta ezker abertzalearen arteko agiriak bakoitzaren esparru politikoak eta erritmoak errespetatzea aipatzen ditu...

Ezin esan, batzuek diotenez, ezker abertzaleak EAn aurkitu duela lurrartzeko pista bat..

Ez dut uste. Urte batean gauza asko gertatu daitezke, baina une honetan ez dut horrela ikusten.

H1! bien bitartean EAJrekin hauteskundeetan aurkezteko estrategia lantzen ari zarete. Zertan datza?

Hasteko, ez dugu uste H1!ek helburu kuantitatiboak aintzat hartu behar dituenik. Gure erronka nagusiak gure ildo politikoa ezagutaraztea, sozializatzea eta zabaltzea izan behar luke. EAn edo EAJn inoiz egon gabeko jendea hurbiltzen ari zaigu. Ez dira ehundaka noski, dozena batzuk dira, 30-40 urte artekoak, baita ikasleak ere. Herri-gintza gure modura egin nahi duen jendea biltzea dugu helburu. Euskal politika oso formalizatuta dago, oso erritualizatua eta solemnea da. Politika egiteko beste modu bat aldarrikatu dugu hasieratik, ikonoklastak eta hausle samarrak izan nahi dugu. Gu ez gara inoren kontra hazteko sortu ordea, EAri edo EAJri jendea kentzeko, gu gure diskurtsoarekin identifikatzen den jendea biltzeko jaio gara. ■

argia.com Elkarriketaren bertsio luzean, Eusko Jaurilaritzako hizkuntza politikaren bere ikuspegia.



Dive Tarpoen urpekaritza




Kirol portua, A7 lokala
48992 GETXO (Bizkaia)
Tel / Faxe: 94 4912577
divetarpoen@euskalnet.net
www.divetarpoen.com

‘Haien krisiak, gure irtenbideak’

Nola erakarri Davos-eko klasea ‘new deal’ berdera

Susan Georgek 90eko hamarkadaren hasierara eramaten nau. Elikadura, ura, merkataritza eta garapen gaiei lotutakoak jorratzen zituen orduan. Gaur egun ere antzera dabil, baina orduko erreferentzia hura autoritate sendoa da egun, bereziki mugimendu altermundialistan. *Haien krisiak, gure irtenbideak* (“Sus crisis, nuestras soluciones” gaztelaniazko bertsioa irakurri dut nik) da bere azken liburua eta ondorengo lerroetan aletzen dena.

XABIER LETONA

NORK ESAN ZUEN munduan jadanik ez zela klaserik? Berak argi du, munduko aberatsak jaun eta jabe izaten jarraitzen dute eta Davos-eko klaseari kritika zorrotza egiten dio liburuan. Hara tesi nagusia: haien aberastasunaren izenean, Davoseko klaseak preso hartu ditu gure planeta eta bere bizilagun gehienak eta, klima aldaketa medio, hondamendiraren garmatza. Zentzuzko lurtarrron egin beharra planeta askatzea da, aurrerantzean bertan bizilagunok lasaitasunez eta atseginez bizi gaitezten. Horretarako, kartzela osatzen duten lau harresiak bota behar ditugu, atera eta hasi bestelako mundua eraikitzen.

Ipuin baten hasiera dirudi edo bideo-jokoa, baina irakurleak berehala konektatuko du ondo ulertuko duen errealitatearekin. “Krisia? Krisia esan duzue?” diosku berak, “Tori ba krisia: aukeratzea besterik ez da”: finantzen krisia, pobrezia-
ren krisia, elikadura eta urarena, gerra eta gatazken... Arazo hauek guztiek iturburu bera dute: “Aktore berdintsuek ohikoan bultzatzen dituzten politika neoliberalak”.

Georgek metafora batekin irudikatzen du munduaren egoera. Egungo neoliberalismo globalak lau esfera zentrokidetan banatzen du mundua, garrantziaren arabera hala sailkatuak: finantzak, ekonomia,

gizartea eta planeta. Kapitalismo klasikoan ekonomiak lehentasuna izan duen moduan, azken hamarkadetan finantzek aurrea hartu eta gaur egun mundua gidatzen dute.

2007an AEBetan hasitako finantza krisi orojalearen muinean bizi garenean, azalpen gutxi behar da Georgek finantzen esferari ematen dion kokapenaren zergatiaz. Hala ere, liburua datuz josia dago, hona


“Mito iraultzailea indartsua da, baina ezin da itxaron iraultzak dena konpondu dezan. Eta orduan?”

finantzen azken krisiaren tamaina hobeto ulertzeko hiruzpalau: AEBetan, 2001etik 2007ra, finantza leherketa gertatu arte zortzi bilioi dolarreko (6,5 bilioi euro) zorra pilatu zen. Hipoteka bat duen edonorentzat ulergarriago egiteko beste datu bat: 2008an, AEBetan bankuek 3.200.000 etxe bahitu zituzten, hipotekak ordaintzen ez zirelako (2006an 1.200.000 eta 2007an 2.200.000). Akabo milioika estatubatuarren amets amerikarra.

Ezer gutxi aipatu behar da egungo diru murrizketez, denok ditugu gureak: osasunean, enpleguan, hezkuntzan, kulturen, ingurugiroan... edo euskal prentsan. Baina dena uler liteke, batez ere 2009ko udaberriaz Georgek aipatzen duen datua ikusita: munduan 4,1 bilioi euro atera ziren kutxa galduetatik finantza sistema zutik mantentzeko.

“Dena guretzat eta ezer ez gainerakoentzat”, hori izan bide da humanitatearen jabeen arau nagusia historiaren aro desberdinetan”. Davoseko klasea ere horretan ari dela dio autoreak eta honi amaiera emateko lau esferen lehentasunak irauli beharko liratekeela, halako ordena lortuz: planeta, gizartea, ekonomia eta finantzak.

Finantzak ekonomiaren zerbitzura, historian ohikoa izan den eran, eta ekonomia jardun garran-



tzitsua, baina gizartean bat gehiago. Eta planeta lehenean, bestela bere hondamendiak beste hiru esferak izarren hautsa bilakatuko dituelako. Paragrafoaren hasierako esaldia Marxena izan liteke, ezta? Bada ez, Adam Smith-ena da, liberalismoaren aitapontekoarena (*Nazioen Aberrastasunaren izaera eta iturrii buruzko saiakera*).

Aberatsak berdera erakarri


Preso gauzkaten aipatu lau harresiei buruz eskainitako hausnarketa eta datuek bizi garen munduan ondo kokatzeko behar adinako pista ematen dizkigu liburuak. Ondorioei buruz, hona berak zinez sinesten duena: krisi bilduma horrek dagoneko abian jarri du aldaketa klimatikoa eta beronen ondorioak geldiarazteko azkar mugitu behar dugu, oso azkar. Larritasunetik, esperantzarako dei egiten du: irtenbideak behar ditugu! Baina nola? Bere esanetan, ezin da kapitalismo finantzarioa behar den premiarekin baztertu, mito iraultzailea indartsua da, baina ezin da itxaron iraultzak dena konpondu dezan. Eta orduan?

Norbanakoen irtenbideak ondo daudela dio, bultzatu behar direla, baina ez dela nahikoa. “Gakoaren iltzea zera da, politikariak konbentzitu behar ditugu ikus dezaten eraldaketa ekologikoak izan dezakeela bere onura”.




Herritarrok erreakzionatzen ez badugu, bizi ditugun krisi anitzek mundua hondamendira daramatela diosku Georgek.

Gaurko eredua



Biharko eredua



Metafora gisa erabiltzen du Georgek esferen eredua eta ordena guztiz irauli beharra aldarrikatzen du: gaur finantzak dira esfera garrantzitsuenak, bihar txikiak izatea lortu behar dela azpimarratzen du, planeta lehena eta finantzak azkena.

Aliatuek Bigarren Mundu Gerran irabazteko egin zuten ahaleginaren tankerakoa beharko litzatekeela dio, baina oraingoan *new deal* berdea bultzatzeko. Irtenbidea ez dela erraza izango, baina bere ustez “enpresa, gobernu eta herritarren batasuna bultzatu eta lortu behar dugu ekonomia keynesiarraren haragiztatze berri bat lortze aldera”. Ingurugiroaren keynesiasismoaz ari da, horrela bazarrik erakarri ahal izango delako kapitala, eta eskema hori langileentzat ere onuragarria delako.

Eraldaketa bide horretan banakuen nazionalizazio edo –berak

nahiago duen moduan– sozializazioaz ari da, ekonomia sozialak hartu beharreko garrantziaz, arma produktzioa gutxitu eta industria militarrean metatutako jakintza industria zibilera eramateaz... Dena ingurugiroa babesteko norabidean, eta horretarako ezinbestekoa ikusten du dirua misio berdera bideratu beharra, hor ere dirua egin litekeelako.

John Doerr estatubatuar eta inbertsore aberatsa jartzen du norabide aldaketa honen adibide gisa. Honek diru asko inbertitu zuen *puntucom*-eko garaian eta hala zioen 2008an Kalifornian emandako hitzaldi batean: “Gogoan al duzue Internet? Teknologia berdea askoz gehiago da... Hau izan liteke XXI. mendeko aukera ekonomikoa (...) Energia merkatu guztien ama da: mundu mailako energia globalak 6 bilioi dolar (4,8 bilioi euro) mugitzen ditu”. Horra Georgek ikusten duen amua.

“Baikorra ala ezkorra zara?” galderari ez ei dio erantzuten liburua- ren egileak. “Ez bata eta ez bestea. Ez dut etorkizuna ezagutzen. Baina badut esperantzarik eta sinesten dut (...) idatzi dezaket zerbait eta norbaitengana iritsi; aktore izan naiteke edo beste batzuk inspiratu aktore izan daitez- zen. Sistema oreka seguruago, berdeago, justuago, humanoago eta zibilizatuagoa eraman dezakeen hondar hutsal baina erabakigarria izan naiteke. Eta zuek ere bai”. ■

Behrooz Shojai
Filologo kurdua

«Kurduera bateratzeak gure herriaren banaketa ekar lezake»

Iranen mendeko Kurdistanen jaio zen Behrooz Shojai. Suedian, hizkuntzalaritzan, unibertsitate irakaslea denak Dohuken (Irakeko Kurdistan) hartu du ARGIA. Kurdistanera itzuli da Shojai, kurduera normalizatzeko behar dute eta.

KARLOS ZURUTUZA

Zer da kurduera? Nondik dator?

Gaztelania, ingelesa eta Europako hizkuntza gehienak bezala, hizkuntza indoeuroparra da gurea. Kurduera, indoiraniar adarrekoa da, hain justu, farsiera, baluxera eta pastunera gertuko ahaideak ditu. Esan ohi da gure arbasoak mediarrek izan zirela. Tamalez, zaila da frogatzea, apenas baititugu inskripzioak mediarren hizkuntzaz. Gaur egun 40 milioi lagunek hizkuntza da kurduera.

Lau herrialdetan banatuta dago Kurdistan. Ageri al da banaketa hau hizkuntzan?

Bai, Iran, Irak, Siria eta Turkiako mugek banatzen dute gaur egun gure herria. Zaila da kurduera sailkatzea prozedura tradizionalaren bidez. Batzuetan nekez esan daiteke dialekto multzoaz ari garen ala hizkuntza bakarraz. Orduan, betiko galdera datorkigu burura: Non dago hizkuntzaren eta dialektoaren arteko muga? Horrexegatik, nahiago dut soziolinguistikari eutsi eta "aldaerez" hitz egin. Kurduerak bost dauzka: iparraldean dagoen dimili edo zazaki izeneko; kurmanji, Turkia, Siria eta Irakeko Kurdistango iparraldean hitz egiten



"Irakeko Kurdistango belaunaldi berriek apenas duten kontakturik arabiar hiztunekin".

dena; soraniera edo erdialdeko aldaera; farsieraren eragina duen hego kurduera; eta azkenik gorani hizkera, Iran eta Iraken artean sakabanatuta. Bost aldaera horietako bakoitzak azpialdaerak ditu.

Zuk emandako mapan komunitate sakabanatu bat ikus daiteke Irango

ekialdean, Kurdistandik urrun. Zein da haien aldaera?

Khorasan eskualdeko kurduak XV. eta XVI. mendean mugitu ziren ekialderantz, mongoliarren kontra borrokatzeko. Soldadu oso trebeak zirenez pertsiar inperioaren ekialdeko mugak defendatzeko erabili zituzten. Gaur arte mantendu dira

han, baina euren arbasoen kurmanjieraz mintzatzen dira.

Kurduera batua existitzen al da?

Kurmanjieraren eta soranieraren estandar bana dugu. Lehenengoa latindar alfabetoz idazten da, eta bigarrena arabiarren bidez. Ezin dezakegu izan estandar bakarra, ospea duen aldaera behar baita horretarako. Hizkera batean edo bestean oinarritzeak esan nahiko luke bestearen gutxiespena. Kurmanjieraren kasuan, Botan eskualdekoa hartu zen estandartzat 1920ko eta 30eko hamarkadetan, han sortu baitzen kurduerazko literatura gehiena. Kurduera bateratzeko ahalegin gehienak Kurdistandik kanpo egin ohi dira, oso zaila izan baita gure lurraldean horrelako ekimenak bultzatzea. Kontuan izan kurduerazko lehen egunkaria Kairon argitaratu zela, 1898an.

Beraz, bi estandar eta bakoitza bere alfabetoarekin...

Zaila da, bai. Askok diote arazo handia bihurtu daitekeela egoera hori, baina gustatu ala ez, hizkuntza plurizentrikoa dugu kurduera. Nazio eraikuntzaren prozesua oso berandu hasi zen gurean. Periferia indartsua izan ohi da, erdigunea aldiz, ahula. Esaterako, frantsesaren kontrako adibidea da gurea. Paris izan da beti erdigunea. Frantsesak aldaera ugari izan arren, hiriburuko hizkera nagusitu zen berehala. Gurean, ez kurmanjierrek ezta soranierrek ere, ez lukete onartuko bestearen inposaketa, eta desberdintasunak ez dira xumeak. Askotan ez dago elkar ulertzerik bi aldaeren artean. Gauzak horrela, kurdueraren bateratzeak gure herriaren banaketa ekar lezake.



Hizkuntza baino, elkarbanatzen dugun errepresiopeko historia dugu adierazlerik garbiena.

Ados, baina ez al litzateke egokiagoa alfabeto bakarra erabiltzea?

Alfabetoa ez da garapenerako oztopo. Edozein alfabeto egokitu daiteke kurdueraren sistema fonologikora, nahi izanez gero, txinatarra ere erabil genezake. Kurmanjierrek osatzen dute gehiengoa, beraz, zaila litzateke hogeitaz milioi lagunek arabiar alfabetoa ikastea. Errazagoa da Irak eta Irango kurduak latindar alfabetoa ikastea, ingelesaren ezagutzen baitute.

Zeintzuk dira kurdueraren epe motzerako erronkak?

"Ez kurmanjierrek ezta soranierrek ere, ez lukete onartuko bestearen inposaketa, eta desberdintasunak ez dira xumeak. Askotan ez dago elkar ulertzerik bi aldaeren artean"

Gustatu ala ez, hizkuntza guztiek bateratze prozesua izan behar dute bizirauteko. Guk kurmanjieraren eta soranieraren estandar on bana behar ditugu. Tamalez, oraindik ezin dezakegu estandar onez hitz egin, batez ere soranieraren kasuan. Irakeko Kurdistango Gobernuak ez du onartzen bi estandar egotea, bereari besterik ez diote eusten. Baina elkarrengandik isolatu beharrean, aldaera horiek elkarrekin egin beharko lukete lan.

Hots?

Neologismo desberdinak erabili beharrean, turkieratik batetik, eta arabiarretik edota frantsesetik bestetik, hitz berriak elkarrekin adostu litezke modu errazean. Edonola ere, ezinbestekoa da kurmanjieraren eta soranieraren arteko onarpena etorkizunari begiratu ahal izateko. Bi aldaeren hitzun bakoitzak berea mantentzeko eta garatzeko eskubideak bermatu behar dira.

Irakeko Kurdistanen ingelesak ordezkatu du arabiera bigarren hizkuntza gisa. Ez al da kontraesana Ekialde Hurbileko erdialdean bizi den herrian?

Arabiera irakasten da oraindik, baina egia da ingelesak pisu handiagoa hartu duela. Gaur egun, Irakeko Kurdistango belaunaldi berriek apenas duten kontakturik arabiar hiztunekin. Hegoaldeko bizilagunen hizkuntza telebistatik baino ez da iristen. Hein batean, familia bereko hizkuntzak diren kurdueraren eta ingelesean oinarritutako hezkuntzan, mendebaldearekiko lotura ezarri nahi da. Gustatu ala ez, arabiera hizkuntza semitikoa da. Oso hizkuntza desberdina da eta gurearen garapenerako oztopo bilakatu da askotan. Esatera baterako, arabierara itzulitako zientzia liburuak lituanierazkoak beste dira. ■

Babeslea: IVAP

"IVAPen misioa da Euskadiko Herri Administrazioetako pertsonak eta antolakuntza hobetzea, administrazio eraginkorragoa, efizienteagoa eta elebiduna lortzeko asmoarekin, eta zerbitzu publikoko zenbait balio komun oinarri hartuta. Horretarako, honako hauek egingo ditu:



- Euskadiko Herri Administrazioen zerbitzura dauden langileei etengabeko prestakuntza eman eta langileak hautatu.
- Euskararen erabilera administrazioan normalizatu dadin sustatu.
- Itzulpen ofizialak eta lege- eta administrazio-erlako euskarazko terminologia.
- Hizkuntzari, legerari eta antolamenduari buruzko aholkularitza, eta antolaketa eta kudeaketaren inguruko ikerkuntza."



Erakunde Autonomiarena
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

XXII. Rikardo Arregi Sariak Lau izen, zeresana franko

Beñat Sarasola, Imanol Murua, Baleike eta ARGIA. Joan den larunbatean, hilak 3, banatu zituzten aurtengo Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak. Literatur kritika, kazetaritza politikoa, herri-prentsa eta 90 urteko ibilbidea saritu zituen epaimahaiak.

GORKA BEREZIARTUA

Argazkiak: Andoni Canellada / Argazki Press

KOSMOSA: Pello Ramirezen txelo doinuak hartzen du Bastero kulturuneako aretoa. Dena dago prest. Horman Rikardo Arregi Sarien afixak. Aulkiak, gonbidatuen zain; mikrofonoa, berben esperoan. Kaosa: kazetari bat urduri, haririk gabeko Internet konexioak madarikatzen. Azkenean ezin Twitter bidez ekitaldia kontatu, eta gerorako utzi du lana. Baliabide tradizionalagoak –boligrafoa, papera– atera, eta ekitaldiaren argazkia ateratzen saiatuko da arratsaldean.

Lau izen: Beñat Sarasola, Imanol Murua, Baleike eta ARGIA. Saria jasotzean, denek zeukaten zeresana. Sarasola izan da ohol-tzara igotzen aurrena. Berria egunkarian publikatutako literatura kritikengatik jaso du Kazetari Berria saria eta, adierazi du, kazetari peto sentitu ez arren, prentsarako egin dituen lanetan literatura oso baliagarria suertatu zaiola. Sarasolaren hitzak editore ezagun baten alboan eserita aditu ditu kronika honen egileak; eta editoreak, zera nabarmendu dio: berak dakiela, lehenengo aldiz irabazi duela gure kazetari-sarietako bat literatura kritikari batek. Generoa izaten ari den garapenaren erakusgarri ere bada, beraz, aurtengo Kazetari Berria saria.

Imanol Muruaren txanda etorri da ondoren. Aipamen Berezia egin dio epaimahaiak kazetari –kronikagilearen zalantza: ofizioa ez al du hemen letra larriz idatzi behar?– zarautzarrari. Arrazoia: Loiolako Hegiak, jakina. 2006ko bake-elkarrizketen sekuentzia osatu du Muruak liburu horretan,



- Arroila Jaitsierak
- Espeleologia
- Zubi saltoa
- Eskalada
- Via Ferratak
- Mendi ibilaldiak
- Elur erraketak
- Orientazioa
- Mendiko bizikleta
- Multiabentura
- Ikastaro teknikoak
- Abentura bidaiak
- eta askoz gehiago...

- Descenso de Cañones
- Espeleología
- Puenting
- Escalada
- Vías Ferratas
- Senderismo
- Raquetas de nieve
- Orientación
- Mountain bike
- Multiabentura
- Cursos técnicos
- Viajes de aventura
- y mucho mas...

INGURU ABENTURA

www.inguruabentura.com

info@inguruabentura.com

Tel: 635 748 948

San Juan 18

Albeniz - Asparrena

Araba

Xabier Letona ARGIAko zuzendariak saria jasotzean esanak

Batzuetan 90 urte pasatu behar dira ohartzeko horrek zer esan nahi duen. (...) Guardia Zibilak *Egunkaria* itxi zutenean, esate baterako, laster ohartu ginen horrek zekarren kalteaz, komunikabide batek bere hiltun komunitatearentzat duen garrantziaz. Eta ez pentsa euskaldun oso, kontziente eta konprometitua izan behar denik hortaz ohartzeko, Gomez Bermudez epaileak ere horixe bera argudiatzen zuen *Egunkaria* auziko absoluzio epaian.

Oso desberdina da komunikabide bat itxi eta, beraz, hil, edo berau akituta hiltzea. Baina hiltun komunitatearentzat ondorioa bera da: ez du gehiago komunikabide hori eta kito.

Ez dakit krisi sasoi honetan euskal prentsaren egoera zein den, baina panorama ezagututa, pentsatzen dut alarma guztiak piztuta izango direla, gorri-gorri. (...) Egoera tamalgarria da prentsaren eremuan eta ni erabat harrituta nago euskal prentsan nola ez datozen itxierak bata bestearen atzetik.

Askotan konplexua sortzeraino entzun behar izan dugu, kultura eta hizkuntza subentzionatuarena, artifizialki bizitzeara eta gisakoak. Eta orain zer eta gobernuak bankuak salbatzen dituzte. Eta milioika euro bideratzen dira autoen lantegietara, altzarien salmentara, eliteko kirola bultzatzera, azpiegitura erraldoietara... Eta gu

ginen diru-laguntza publikoetatik bizi ginenak. (...) Honekin bakarrik azpimarratu nahi dut zerbait sendo bultzatu nahi denean, suspertu eta aurrera atera nahi denean, gure instituzioak gogotik inplikatzeko direla horretan, ahalginean eta dirutan. Eta logikoa da gainera.

Baina ez da hori euskal prentsaren kasua. Ez dugu halako sostengurik sumatzen, inondik inora. (...) Ez nuke nahi hau salaketa gisa hartzea. Hausnarketa da hau. Instituzioei arduratsu jokatzeko dei bat izan nahi du honek, dei zintzoa. (...) 90 urteko ibilbidea saritu da hemen eta zalantzarik ez, ondare historikoa garrantzitsua da, baina garrantzitsuena oraina da, oraindik bizi diren proiektuak, garrantzitsua etorkizuna da. Ez, ez dugu autoen gurgilak edo sukaldeko garbigailuak baino gutxiago izan nahi. Eta hala sentitzen gara. Euskal prentsan urte luzez ari gara bakoitza berean, itota eta elkarlanari bide eman ezinean. Ea lozorro horretatik esnatzeko indarrak topatzen ditugun. Behar dugu.

Bukatzeko, bi pertsona aipatu nahi nituzke, azken 30 urteko ARGIArentzat oso garrantzitsuak. 1980an beraiek egin zuten posible Zeruko ARGIAtik ARGIArako jauzia: Joxemi Zumalabe zena eta Joxemari Ostolaza. ARGIAko lan talde osoaren izenean, mila esker eta zorionak 90 urte hauek posible egin dituzuen guztioi.

ñabardura ugari azaleratuz, lanbropean zeuden gertakariak argituz. Hitz hartu duelarik, ordea, bere liburua kritikatu du Muruak, bukaera “txar” eta “prebisiblea” daukalako. Eta prentsak gure Arazoan—hemen zalantza gutxiago ditu kronikagileak letra larria jartzeko— bete beharko lukeen rolaz hausnartu du. Kazetaritzak ezin omen ditu gatazkak konpondu, baina konponbidea ez oztokatzen, gutxienez, saiatu beharko luke. Hartzeko moduko oharra, aurrerantzean zer gerta ere.

Zumaiako *Baleike* aldizkariak irabazi du aurtengo Sari Nagusia. Bizi-

bizi dabilta nola paperean, hala sarean. Saria jaso, eta jende aurrean paratuta, herri prentsaren estatusa aldarrikatu du Gorka Zabaleta zuzendariak: “Herriarrei gehien axola zaiona gertuko informazioa da”. Gertukoa, hilabetekarian; gertukoa, egunero Interneten: albisteak, blog komunitatea, multimedia... Aurrerantzean ere, emango du zeresana Zumaiako komunikazio proiektuak.

Eta, *last but not least*, ARGIA. Oherrezko Aipamena jaso du euskal prentsaren dekanoak, 90 urteko ibilbidearen sari modura. Xabier Letona

zuzendariak hitz egin du ARGIAko lan talde osoaren izenean, eta euskarazko proiektu komunikatiboek egun bizi duen egoeraz hausnartu du. Letonaren esanetan, garrantzitsua da ondare historikoa zaintzea, baina bizirik dauden proiektuak, orain eta hemen diharduten horiek dira inportanteenak. Horregatik, krisi ekonomikoaren mehatxupean, sektoreak eta instituzioek elkar hartu behar dutela adierazi du. ■

argia.co Gure kamerak ere ikusi zuen sarien ekitaldia. ARGIA.com-en duzu bideoa.



TALLERES MITXELENA S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

170.000 euro. Oraingoan bai?

NAFARROAKO GOBERNUAK baieztatu du, aurtan euskarazko hedabideei 170.000 euroko diru-laguntza emango diela. Hedabide bakoitzari zehaztutako erdia emango zaie eta beste erdia jardueraren memoria eta egiaztagiriak aurkeztutakoan jasoko dute. Euskarazko hedabideek 170.000 euro, eta 50.000 euro izango dira euskara neurri batean erabiltzen duten gaztelaniazko hedabideentzat. Iaz Nafarroako Gobernuak ez zuen diru-laguntzarik banatu euskarazko hedabideen artean, eta duela hilabete batzuk Nafarroako Topaguneko Oskar

Zapata ordezkariak adierazi zuen hedabide horien egoera ekonomikoa larria zela. Ikusi beharko da agindutako beste erdia jasoko duten eta ea aurrera jarraitzeko adina baduten.

Euskara Ipar Euskal Herrian

EUSKALTZAINDIAK liburua atondu du izenburu honekin: *Helduen euskalduntzea eta etorkinak Ipar Euskal Herrian*. Euskara ikasten ari diren helduen ezaugarriak aztertu dituzte eta bertakoen eta etorkinen xehetasunak bananduta erakutsi dituzte. Erramun Baxok eta Jean-Baptiste Coyosek egin dute libu-

rua. Erramun Baxokek *Berrian* esandakoak ekarri ditugu hona: “Uste nuen hizkuntza bat ikasteko arrazoi nagusia lanari lotua zegoela, lan hobe atzemateko eta hola. Euskarari buruz ez da hori gertatzen (...) Nortasunari lotuak diren motibazioak agertzen dira lehen, bai etorkinen kasuan zein herriarren kasuan. Bertakoek beren arbasoen hizkuntza berreskuratu nahi dute, kultura bereganatu eta beren haurrak euskaldundu. Aldiz, Euskal Herrian integratzea bilatzen dute etorkinek, euskal kulturari buruzko atxikimendu handia erakusten dute, baina ez dute gogo hori islatzen haurrak eskolaratzeko unea”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

BAHEA

[El Correon Lourdes Auzmendi Hizkuntza Politikarako sailburordeak esanak eta Tiraka blogean horiei buruz egindako hausnarketa:](#)

[Auzmendi:](#) [Euskara sustatzeko zer egingo duen galderari erantzunez] “Makinaria koipeztatuta edukitzea da lehentasuna; gazteen eskura euskaraz bizitzeko ahalik eta aukera gehien jartzea. Batez ere teknologia berriekin zerikusia dutenak”.

[Tirakako Burunda erabiltzailea:](#) “Berriz ere gazteen mitoarekin bueltaka. Ez dute gazteek lan makala gure frustrazio guztiei buelta ematen. Ez dugu droga daitezen nahi –hori esaten diegu jintonika eskuan–, irakur dezaten nahi dugu –telebistako teletextoa irakurtzen dugularik gehienez ere–, bakezale nahi ditugu –kar, kar, eta kar–... eta gurean euskaraz egin dezaten –eurek, horiek, haiek–... nahi dugu ere bai, geuk zirkinik ere egin gabe...”.

TALAIAN

Greba orokorraren irakaspenak

Arrazoi batzuegatik edo besteengatik etorkizunean Euskal Herrian deituko diren greba orokorretan aurrera egiteko, ondo legoke aztertzea orain arte egin direnak. Azkena da horien artean, sindikalgintza abertzaleak eta CC00k besteak beste lan erreformaren aurka deitutakoa. Greba orokorra deitzeak sektore guztien inplikazioa dakar, ez bakarrik lan arlokoa –pribatua eta publikoa–, eta herriarren egunerokoa geldiarazi behar du. E-29koa nabarmena izan zen, baina desberdina, eta batez ere, herri txikietan salbu, ez zuen herriarren egunerokoa geldiarazi. Mezuak erreformaren ondorio laboraletara mugatu ziren, ez ziren zabaldu horrek guztiak familiei, pentsionistei, hezkuntzari, komertzioei, tabernei eta auzoei ekarriko dien ondorioetara. Horregatik, greba egitera atera ziren nagusiki industria arlokoak izan ziren. Lehen irakaspena: mezuak zehaztu, zabaldu eta orokortu egin behar dira lan sektorean, gizartean, familietan eta pentsionisten artean.

Greba baloratzeko orduan, E29koa tartean, Patronalak, Administrazioak eta sindikatuek oso datu ezberdinak eskaintzen dituzte: batzuek “erabateko porrota” (Patronalak) edo eragin eskasa (Administrazioa) aipatzen dute eta bestetuek arrakasta (sindikatuak) izan dela diote. Seguruena hiruretako inork ez du egia osoa esan. Alde bakoitzak bere interesak defendatzen ditu. Bigarren irakaspena: Inportantea da egia leial izatea. Ez da ezer lortzen grebaren jarraipena murriztu, puztu edo manipulatzearekin. Herri bakoitzean eta enpresetan badakite zein izan den benetako erantzuna.

Ez du arrazoizkoa ematen kapitalismoak baturik egin duen eraso larriari sindikatuek bananduta erantzutea. Eskandalua da grebarako bi deialdi izatea egun berean, eta mobilizaziorako beste bat hurrengo egunean. Hirugarren irakaspena: sindikatuek ekintzak bateratu behar dituzte interes berekoien gainetik.

Juan Mari Arregi

Katalunia: autonomia edo independentzia

GREBA OROKORRA 2009ko maiatzean egindakoaren gisakoa izan den irudipena dut. Eskualde zehatz batzuk kenduta ez da greba orokorrik izan, are gutxiago Hego Euskal Herri mailan. Baina hori, orduan moduan, orain ere jakina zen. Espainiako gobernuak bultzatutako lan erreformaren aurka egitea zen helburu zehatza eta krisiaren aurrean interes publikoa eta sektore ahulenen defentsan jarraitzea helburu orokorragoa.

Protesta indartsua izan da berriz ere, aurreko grebarekin batera, Euskal Herrian urteetan izandako gizarte mobilizaziorik handiena. Bildu grebara ateratako langile guztiak, bildu herri eta hiriburuetan egindako manifestazio guztietako herritarrak eta konpara azken urteetako beste edozelako mobilizazioarekin. Greba deialdiek nekez konpontzen dute momentuko ezer, ez da hori beren helburua. Baina horiek kontuan hartzen ez dituen txarto dabil. Egon liteke ados edo ez, baina greba mespretxatzen duenak, iragan mendean ongizate gizartearen akuilu eta lorpen garrantzitsua izandakoa mespretxatzen du.

KATALUNIako GIZARTEAK datoarren larunbatean Espainiako Auzitegi Konstituzionalak emandako epaiaren aurkako protesta tinkoa emango du, beste behin ere. Baina arbuiazeaz gain, oraingoan manifestazio horretan Kataluniako gizartean bertan egosten ari den lehia- ren ispilu ere izango da: autonomia ala independentzia? Konstituzionalaren orrazketa berri honek Espainia gero eta urrutiago ikusten dutenen alde egiten du.

Duela bi hamarkada independentismoa oso zatikatua zegoen eta politikoki nahiko marginala zen



ALEX LARRETXI

Kataluniako gizartean. Gaur egun, aldiz, kontsulta sinbolikoen bidez 600.000 pertsona independentziaren alde bozka ematera hurbiltzea lortu dute. Ondorengo hilabeteetako kontsultekin milioi bat pertsonen parte hartzea gainditu nahi dute.

Konstituzionalak oso egoera kasarrean utzi ditu Kataluniako autonomia zaleak. Epaiak negoziazio ahalmen barik utzi du autonomismoa eta bereziki PSC. Hauteskunde autonomikoei begira, CiU da egoera honetatik gehien atera dezakeena eta horretarako antolatuen dagoe-na. Independentismoak inoiz baino oihartzun sozial gehiago izan arren, zatikatua dago: ERCren zatiketarik sortu zen Reagrupament alderdiaz gain, Joan Laporta Bartzelona futbol taldeko lehendakari ohiak Democrazia Catalana ere sortu berri du.

ERC, Reagrupament eta Democrazia Catalana dira eremu independentistaren hiru aukera nagusiak, noiz eta independentismoak inoiz baino indar handiena duenean. Edozein modutan, oso posible da Laporta eta Joan Carretero- ren bi indarrek azkenean koalizioa osatzea. Independentista askok, hala ere, gehiago nahi du eta Laporta eta ERCren elkar ulertzea eskatzen ari da, besteak beste horrek bermatuko lukeelako Kon-

tsultaren gaia indarrez eramatea Legebiltzar berrira. Vilaweb-eko zuzendari Vicent Partalek, adibidez, gutun irekia idatzi die Puigcercos eta Laportari "PSC eta CiUren herri ereduari" independentismoak modu bateratuan aurre egiteko.

Hauteskundeetako emaitzak ikusi beharko dira lehenik, baina ondoren, kontsultarenarekin Ibarretxe lehendakariaren kontsultari gertatutakoa bizi dezakegu berriz Katalunian. Hori aurreikusiz, kontsulta eta erreferendumen alorra da Espainiako Konstituzionalak Estatut-ean ukitu duenetakoa, argi utziz eremu hori Madrilen eskumenekoa dela.

UDALBILTZA AUZIA hasiko dato- rren astean, uztailaren 15ean eta horren ondorioz 22 pertsona eseriko dira Auzitegi Nazionalen, guztiak udal jardueretan egindako lanagatik auziperatuak. Udaletan egiten diren ohiko jarduerak, baina Auzitegi Nazionalaren aburuz "ETAk agindutakoak". Auzi honetan ere oso age- rian geratuko da akusazio osoa frogarik gabe eraiki dela, berriz ere poliziaren txosten hutsei froga maila gorena emanez. Justizia eza eta "dena da ETA" mailu judizialaren kolpe bat gehiago.

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Hego Tiroleko abertzaleen arbolak eta intxaurrak

Maiatzaren 25ean Silvius Magnano hil zelarik, 96 urte gaz, Hego Tirol autonomoaren aitajauna hil zela idatzi zen, 1945etik hango politikaren muinean jardun zuelako, azken 35 urteotan alderdi nagusiaren agintaritzan. Bidean ez ETarik, ez Garaikoetxearik eta ez Imazik egokitu ez zitzaion Arzalluz buruzagi tiroldarra, nolabait esateko.

“GIRO D’ITALIA” DOLOMITA MENDI izugarrietatik pasatzen denean, telebistetako kazetariek ez digute abisatzen inguru haietan bi ez, hiru hizkuntza hitz egiten direla eta eskualde autonomo batetik gabiltzala. Aldiz, Europa modernoko autonomia zaharrenetako bat hortxe dago, Alto Adige/Südtirol barruan.

Komeni da ez nahastea. Trento hiriburutzat daukan Trentino-Alto Adige/Südtirol eskualde autonomoa bi probintziak osatzen dute, azaleraz bezala biztanle kopuruz —milioi erdi jende inguru— paretsuak biak: bata Trento eta bestea Bolzano/Bozen edo Hego Tirol (Südtirol).

Bi probintziak duela 90 urte arte, zazpi mendez, Austriari loturik bizi izan dira, Tirol probintziaren barruan, denbora luzez inperio austriar-hungariarraren zati. Arik eta 1914an, lehen gerra mundialarekin, Italiak bereganatu zituen arte. Trento italiarrera gaur hurbiltzen direnek nekez sinetsiko duten arren hala da.

Austriarrei gerra galduarazten laguntzearen saritzat lurralde hau bereganatuta, erregimen faxista ezarritakoan Benito Mussolinik eskualdea italiartzeko plana abiarazi zuen. Hitlerrek Mussoliniren beharra zueñez, bien artean adostu zuten ahalik eta hegotiroldar gehienak Austriara edo Alemaniara eramateko plana.

Bigarren Mundu Gerra bukatuta,

aliatu irabazleek eremu gatazkatsu batekin egin zuten topo eta Austria bezala Italia behartu zituzten konponbide honetara: eskualdea Italiaren zati da baina autonomia zabal batekin, italierarekin batera alemanari ere ofizialtasuna aitortuz eta beste.

Agian irtenbidea ez zen txarra gertatuko... ez balitz izan kultura eta hizkuntza mailan bi komunitate nagusien arteko eten handiagatik. Bi probintzia izaki, Trento italiar-hiztuneari bezala Hego Tirol aleman-hiztuneari tirabira gogorra eragiten zuten eskualdea italiartzeko Mussolinik abiarazitako prozesuaren ondorioek.

Orain arte ez dugu esan Trento probintzian populazio ia guztia italiaraz mintzo dela, baina Hego Tirol nagusiki alemanez. Hemen kulturazko asimilazio ahaleginak kalte handiak ekarriak zituen, hiztun kopuruaren aldaketetatik hasita italiarazko toponimia berria asmatzeraino. Nazionalismo tiroldarrak indar berria hartu zuen.

Doitxeraz bizi zen herritar gehien botoak 1945ean sortu Hego Tiroleko Herri-Alderdiak bereganatzen zituen (*Südtiroler Volkspartei*, SVP, jatorrizko hizkuntzan). Arrakasta handiz, gainera, 1948tik gaurdainoko hauteskundeak irabazi ditu SVPk, eta gaur alderdi horretako Luis Durnwalder da Trento eta

Mazingazeta blogetik hartutako irudian ikusten dira herrilaretako beharginak Sepp Kerschbaumer-en omenez margotutako horma-irudia artatzen, Hego Tiroleko Eppan/Appiano herrian. Polizia italiarrak BAS mugimendu independentista armatuko buruzagia zelakoan arrestatu eta torturatu ondoren epaileek espetxealdi luzera kondenatu zutelarik, 1964ko abenduan hil zen preso. Wikipediatik hartutako irudi txikikoa da Silvius Magnano maiatzaren 96tan hil den buruzagi nazionalista tiroldarra. Mussoliniren presioz beste askok bezala Alemaniara ihes eginda eta Hitlerren armadak II. Mundu Gerrara eramanda, zango bat moztuta etxeratu zen frontetik. 1945etik egon da aginte postuetan, bai alderdi nazionalista kontserbadorean eta bai Hego Tiroleko erakundeetan. Batzuek intxaurrondoa astindu eta besteek aleak biltzen dituztela, egia dirudi Tiroleko abertzaleen artean ere.

Hego Tirol biltzen dituen eskualde autonomoan presidente. Hala ere, 1950eko hamarkadan beste abertzale batzuek gogorrago ekitea erabaki zuten, sortuz Hego Tirol Askatzeko Batzordea (*Befreiungsausschuss Südtirol*, BAS).

“Hego Tirol Askatu”

Ez da erreza BAS mugimendu armatuaren arrastorik aurkitzea gaur egun. Wikipediak Hego Tirolen historia kontatzean dio batik bat argindar postea eraisten zituztela BASeko militanteek, Italiako industriari Alpeetan sortu argindarra eteteko, baina hilak ere eragin zituela ekintza bortitzak, 21 denetara, 14 polizia eta 7 klandestino. Xehetasun askoz gehiago ez.

Irakurleak gerrilla edo terrorismo bataiatu dezakeen jarduera hark heroi bat utzi zuen Hego Tiroleko jendeen oroitzapenean: Sepp Kerschbaumer (1913-1964). Herri txiki bateko dendari batzuen semea, zortzi urterako umezurtz geratu zen, aita gerrako frontean hilda. Hogei urte zituela herbestera egin zuten faxistek aktibismo politikoan aritzeagatik; bi urte beranduago itzuli zen, Mussoliniren indultu bat baliatuz.

Bigarren Mundu Gerran beste hegotiroldar askorekin batera Alemaniara joan zen, baina laster ohartu



omen zen naziengandik bere herrialdeak ezin zuela askorik espero eta etxera itzuli.

Südtiroler Volkspartei alderdian sartu zen, baina 1950erako asperturik zegoen haren moderazioaz. 1957an manifestazio baten erdian "Hego Tirol Askatu" zioten paskinak banatu zituen. Beranduago, beste batzuekin BAS antolatu zuen. Desegitea erabaki zuten arte, BASEkoak izateagatik 94 tioldar pasatu zen espetxetik.

BASek 1961eko ekainaren 12an *Feuernacht* (Suzko gaua edo gau beroa) antolatu zuen: 31 argindar poste handi lurreratu zituen, Italiako iparraldean kaosa eraginez. Biharamonean atxilotu zuen poliziak Kerschbaumer, sabotajearen ardura-

duna zelakoan. Komisaldegitik ataratakoan Kerschbaumerrek salatu zuen torturatu egin zutela, eta honek are gehiago haserrarazi zituen Hego Tiroleko jendeak.

Epaileek 15 urteko espetxe zigorra ezarri zioten BASEko buruzagiari 1964ko ekainean. Baina Kerschbaumer urte hartako abenduan hil zen Veronako presondegian, ofizialki bihotzekoak jota. Bi egun beranduago, 15.000 herritar —orduko biztanleriaren %5!— hurbildu zen Frangart sorterrian egin hiletara. Gaur sorterriak monumentu batez ohoratzen du Kerschbaumer.

Handik zazpi urtera, 1971n, itun berria sinatu zuten Austriak eta Italiak Hego Tiroleko aferak baretzeko. Austriarrek onartzen zuten Hego

Tirol Italiaren barruko kontua zela, Italiak eskualdeari autonomia zabalgaoa lagatzen zion eta bi aldeek adosten zuten edozein arazo Hago-ko nazioarteko epaitegian konpontzea. Kronikek diote estatus berriak baretu zuela Hego Tirol.

Eskualde honetako gatazka ezin da ulertu nazioarteko gaia ere badela ahaztuta. Izan ere, gutxienez bi alditan eraman du Austriak Hego Tiroleko arazoa Nazio Batuen Erakundearen biltzar nagusira, 1959an eta 1961ean, beste aldetik BAS ekintza armatuak egiten ari zenean. Ez alferrik izan zen lurralde hau austriarra mende luzez.

Gaur Suitza gogorarazi dezake Hego Tirolek, udalek daukaten autonomiari edo hizkuntz komunitateen arteko indar banaketari begiratzen bazaie. Hizkuntza bakoitzak eremuak oso neurtuta dauzka, hamar urtean behin eroldaren berritzean biztanle bakoitzak aitortzen duen hizkuntz atxikimenduari lotuta.


2001eko eroldan hegotioldarren %69 aleman-hiztun azaldu zen (gehienik Bolzano/Bozen hiriburuan bildurik), %27 italieradun eta 4,3 ladinoari atxikia. Ladinoa den hizkuntza txikiak ere oroitarazten digu Suitza: 30.000 jendeak hitz egiten duten ladinoa Suitzan 35.000k darabilten erromantxeraren senidea da. Aldiz, Italian bertan, Venezia inguruetan, mintzatzen den friulera urrunagoko ahaidea dute.

Maiatzean hildako Silvius Magnanok ez zituen helburu denak lortu. Bolzano-/Bozen erdian zutik dirau, probokaziotzat, Mussolinik I. Mundu Gerrako garaipenaren aitzakian eraiki monumentu faxistak. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Bidean bidaide, eta gogoan gogaide

Geroa argituz doa euskal unibertsoan. Beren burua betiko demokratizatzen duten batzuek ezker abertzalea euren gustuko pistan lurreratzea nahi bazuten ere ezker abertzaleak, barneko debatea argibide, Euskaldunako ontziola hartu berri du uretaratze pista. Eta ez bakardadean bustitzeko, elkarlanean baino. Euskal Estatu bidean nahi dituzte bidaideek partekatu orain arte bakoitza bere aldetik sortzen joan diren baldintza sozio-politikoak, apustu horren bidera eramanez konfrontazio emankorra, konfrontazio guztiak holakoak ez direlakoan. Kasuko, Iruñeko apirileko adierazpenean *kolapso* hitzaz jasotzen da blokeo egoera areagotu izanak indartu duen egoera.

Ez dakit estatua ote den utopiako munduan gizartea ganoraz uztartzeko behar den egitura, baina gerokoak geroko utzita argi daukat gaur gaurkoz, etzi etziko ere, euskaldunok Estatua behar dugula, izaten segitzeko. Are gehiago behar, bere oinarri guztietan merkatu ahalguztidunaren morroia den Europa horretan gure zirrikituak aurkitu, indarrez zabaldu eta hurbiltasunetik, aldaketarik aldaketa, bestelako erreferentzia soziopolitiko-ekonomikoak sortzeko apustua egin nahi badugu, barrura zein kanpora begira sortu ere; eta krisi garaian gehiago. Herrien Europa bidean urraska. Bidaideak ez dira gaur Europan faltan.

Estatua eta agintea. Aldaketarik inportanteenak, tamainaz eta hedapenaz, erabaki-guneetatik gauzatu behar dira, lekuz leku eta egunez egun gauzatzaren diren hamaika aldaketa uztartzaille. Hortaz, agintea lortu behar du ezkerrek, kanpotik eta barrutik ari diren botere ekonomikoei aurre egiteko modukoa. Horren bidean eskaintza politiko osoa, sinesgarria, eskaini behar



DANI BLANCO

zaio euskal gizarteari gehiengo soziala gizendu eta mugiarazte aldera.

Apustuak apustu, euskal herrialdeetako aurreranzko eremu politikoa trianglelu batez irudikatzen dut. Konstituzionalistak erpin batean, zezen-larruaren defentsan ezker-erpin batean, Euskal Estatu bidean mugimendu independentista zabala esparru desberdinetan ezkerretik saretuz, bide honetan konfrontazio ideologikoa ezin baita bazter utzi, Euskal Estatua gaurko Estatuaren status quoaren isla izan ez dadin. Eta nazionalistak beste erpinean, zentralitatez ez duen erpinean, merkatu zabaleko erkidego honetako kudeaketa helburu.

Ezker soberanistaren erpineko bidai-deek, direnak direla, badute burua bete lan, Estatu bidean enborrezko bide-orri politikoari sozialean, ekonomikoan eta ekologikoan ere bideak txertatu behar baitizkiote gutxienezko batzuen inguruan, eta gutxienezko gutxi batzuk baino gehiago behar dira bestelako gizarte-eredu baterako Estatu bidean. Beharbada, batzuek Euskaldunako dokumentua herren ikusi dute ezkerren hankatik. Eta beharbada ere, horietarik batzuek ezin ezker curriculum oso argia erakutsi, orain artekoan behintzat, beste hainbaten

legez honetan ere sutan jartzean probatzen baita zelakoa den norberaren eltzea. Tira, erpin horretako guztiek hartzen dute euren burua ezker, batzuek adjektiboa eta guztiz. Bada debaterako abiapuntua behinik behin! Borroka ideologikoa funtsezkoa delako, instituzionala eta herritarren aktibatzea beste. Adostasunetan elkarlana. Desadostasunetan elkar errespetua, orain artean izan direnak baino gehiago hemendik aurrera egin beharreko debate sakonetan argituko diren desadostasunetan. ■

« Agintea lortu behar du ezkerrek,

kanpotik eta barrutik ari diren

botere ekonomikoei aurre egiteko modukoa.

Horren bidean eskaintza politiko osoa,


sinesgarria, eskaini behar zaio

euskal gizarteari gehiengo soziala

gizendu eta mugiarazte aldera

ASTE HONETAKO

zozketa



Urola Jatetxea

Afaria 2 lagunentzat

Fermin Calbetón, 20
Donostia GIPUZKOA

www.restauranteurola.com

1



Inguru Abentura

1. mailako arroila jaitiera
3 bikoterentzat opari

San Juan kalea, 18
Albeniz ARABA

www.inguruabentura.com

2



Donostiako Aquariuma

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIZPUKOA

www.aquariumss.com

3



Zientziaren kutxagunea

4 harpidedunentzat
bina sarrera

ikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.miramón.org

4



Txoria Txori

2 lamina opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2236. Argia)

UGARTE

• Gotzon Apaolaza Bernedo (Lasarte-Oria)

TARPOON

• Juan Ignacio Elozegi Aldasoro (Berastegi)
• Iñaki Sagasta Arana (Arrasate)

BILBO SAMURAI

• Kerman Rekondo Arzallus (Usurbil)
• Jose Mari Goiburu (Donostia)

EUSKAL MUSEOA

• Joxan Apaolaza Bernedo (Oiartzun)
• Joxe Mari Ibarburu Arotzena (Donostia)
• Mikel Leturiaga Gorrotxategi (Zarautz)
• Alkizako Udal Liburutegia (Alkiza)

CHILLIDA-LEKU (bisitaldirako epea: uztaila)

• Maria Jesus Zubikarai Erkiaga (Markina-Xemein)
• Tere Insausti Irastorza (Zaldibia)
• Lurdes Ulazia Aizpurua (Gabiria)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

Eskuratu *Zumetak* ARGI Arentzat egindako lan-grafiko originala

 **argia**



EZAUGARRIAK

- Edizio limitatua
- Jose Luis Zumetak eskuz sinatutakoa
- Testura bereziko paper naturalean egina
- 50x40 cm
- ARGIAko harpideek izango dute lehentasuna
- 160 €

ESKAERAK



943 37 15 45



gunea@argia.com



www.argia.com/denda

Zumetak